

ARGIA

PANTAILALDIA

Ohiturak aldatzeko garaia

34-37. orrialdeak



**Gazako genozidioari
buruzko frogak,
film laburretan**

12 | FROM GROUND ZERO



**"Heriotza-zigorra onartu,
eta biharamunean
hil zuten neba"**

18 | CARME PUIG ANTICH



**Ekonomikoa ez da
traba bakarra**

28 | ETORRI BERRIAK
EUSKALDUNTZEN

APIRIL
~
MAIATZEAN

Azokaroa!

30^{ean}
ORTZAIZE
MENTA
liburudenda

18.30

"HETERO" **LIBURU AURKEZPENA**

UXUE ALBERDI EGILEAREKIN



7^{an}
ZIBURU
Baltsan

19.00

"RR -6-ERRE(AH)ALA"

MAIALEN LUJANBIOren **ERREZITALDIA**



10€ pintxoak barne

16^{an}
URRUÑA
Bertoli

19.00

"BIHARRAREN HEGIETAN"

MADDI, AINHOA eta **IXAK SARASUA**
eta **JULEN LEZAU**ren
ERREZITALDI MUSIKATUA



5€ pintxoak ondotik

19^{an}
 **uhinetan**
EUSKAL
RRATIAK

19.00

"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI?"

MAHAI INGURUA **XIMUN FUCHS** (Artedrama, Axut)
eta **AMAGOIA GURRUTXAGA** (Lanartea)



23^{an}
AZKAINE
Bil Toki

19.00

"GIZATASUN ARRANTZALE"

MIKEL EPALTZA

LIBURU AURKEZPENA

EGILEAREAKIN

(eta Mixel Jorajuria itzultzailearekin)



28^{an}
DONIBANE
LOHIZUNE
Mediateka

19.00

"MASUSTA ERREXIMENTA"

LIBURU AURKEZPENA

EKAITZ BERGARETXE EGILEAREKIN



ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
- HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **UNAI GAZTELUMENDI**

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

Iritziak

- 23 | ASIER BLAS
- 24 | ANE ABLANEDO
- 25 | INMA ERREA
- 25 | UXUE APAOLAZA
- 26 | MIKEL BASABE

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



12 | GENOZIDIOA GAZATIK ETA GAZATARREK KONTATUA FILM BATEAN

From Ground Zero filma osatu du Rashid Masharawi zinemagile palestinarrek, gazatarrek filmatu eta bidali dizkioten 22 film laburrak elkartuta. Bertan ikusten dena kontatu du Jenofa Berhokoirgoinek Net Hurbil ataleko artikuluan, eta elkarrizketa egin dio ekoizpenaren koordinatzaile den Laura Nikolov-i.

Elkarrizketak eta erreportajeak

18 | PERTSONAIA | CARME PUIG ANTICH

“Saiatzen zara hau eta hura egiten, baina hortxe da beti Salvadorren heriotzaren zauria”

Miel A. Elustondo

28 | EUSKARA | ETORRI BERRIAK

Euskalduntzerako bidean harriak eta zubiak

Jones Gartzia

34 | EUSKARA | PANTAILALDIA

Sortzea ez da nahikoa, ohiturak aldatzen ez badira

Gorka Peñagarikano

44 | KULTURA | GEROTIK... GERORA

**Arnaut Oihenart:
‘O.ten gaztaroa neurtitzetan’**

Gorka Bereziartua

46 | KULTURA

**Nor zen Jon Mirande
eta zer egin berarekin?**

Iñigo Satrustegi

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiel Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Hala bazan

Justizia sozialaz, migratzaileez, Palestinaz... hitz egiten zuen. Eta apaltasunez egiten zuen, oparotasunez inguratuta. Beraz, hamabi urteko agintaldian, ezkerreko jende askok, baita zenbait ateok ere, Bergoglio zenaren keinu asko txalotu zituzten. Izan ere, Wojtyła eta Ratzingerren ondoren, ez zen zaila progre gisa agertzea. Baina Aita Santu "erreformistak" erreforma gutxi egin zuen bere etxean. Emakumeak arraren saihests-hezur batetik ateratako zerbaiz izaten darrai, homosexualitateak gaixotasuna, eta sexu-abusu masiboek "akats puntualak". Aita Santu "aurrerakoia" ez zuen aurrera eroan ultrakontserbadorea, patriarkala, klasista, homofobia eta koloniala izaten jarraitzen duen erakundea. Hori ez du pertsona batek aldatuko, eta are gutxiago, bere postua nahi duten 80 urtetik beherako 138 kardinalak. Gainerako erlijioetan pertsonaia fabulistikoen Lurreko ordezkari direla diotenak bezalaxe, Eliza Katolikoa arazoaren parte da, ez konponbidearena.



Itzalaldiak agerian utzi duena

 ENEKO IMAZ GALPARSORO

Hedabideetan nahikoa aipatu dira joan den apirilaren 28ko itzalaldiak gizartean eragin zituen ondorioak, baina nahikoa aipatu al da gertakari horrek agerian uzten duena? Besteak beste, bi auzi nagusi: bizirauteko energiarekiko dugun menpekotasuna eta azken urteetan gertatzen ari den zerbitzu publikoen kalitatearen beherakada. Asier Garaialde Izarkomeko arduradun teknikoak "sistema ez horren zentralizatu eta sareatuago bat" aldarrikatu du Naiz Irratian. Egon dira ere itzalaldiak iraun dituen orduetan Gazako palestinaren egoeraz oroitu direnak.

Bizpahiru orduko itzalaldi batek gogor kolpatu ditu Euskal Herria eta Iberiar penintsula osoa. Asteleheneko 12:30 aldera joan zen argindarra Hego Euskal Herrian, eta ordubete ingurura hasi zen itzultzen herri gehienetan, ezberdintasunak gorabehera. Halere, herri batzuetan egun osoa eman zuten argindarrik gabe.

Pedro Sánchez Espainiako Gobernuko presidentek agerraldia egin zuen, eta azaldu zuen "inoiz ikusi ez den" gauza bat gertatu zela 12:33 zirenean. Haren arabera, sare elektrikoak hamaibost gigawatt galdu zituen bost segundo eskasean, hau da, une horretan estatu osoan kontsumitzen ari zen energiaren %60. Portugalgo REN operadore elektrikoak "fenomeno atmosferiko arraro bat" gertatu zela esan zuen, eta horrek Espainiako argindar sarean arazo handi bat eragin zuela. REE Red Eléctrica Española enpresako zuzendari Eduardo Prietok, berriz, itzalaldia potentziaren fluxuaren "oszilazio handiari" egotzi zion, eta baztertu egin zuen zibersegurtasuneko gertaera bat izan zenik.

Aurretik aipatutako hori guztia jada nahikoa errepikatu da Euskal Herriko nahiz estatu osoko hedabideetan, baina nahikoa aipatu al da gertakari honek agerian utzi duena? Besteak beste, bi auzi nagusi: bost segundo eskasean gertatutako arazo batek Iberiar penintsula osoko zerbitzu guztiak geldiarazi ditu hainbat orduz. Horra hor gaur egungo gizartean energia kontsumoarekiko dugun menpekotasunaren erakuslea.



Agerian geratu dira gaur egun indarrean dagoen energia sistemaren ahulguneak, baita horiek iraultzeko beharra ere

Duela astebete, Espainiako Gobernuak iragarri zuen 10.471 milioi euro gehiago bideratuko dituela Defentsara, eta horrela urte amaierarako aurrekontu militarreko bideratutako gastua herrialdeko barne produktu gordinaren %2 izango da. Bitartean, nabari al da konpromiso maila berbera itzalaldian kaltetuen irten ziren zerbitzuekin? Esaterako, argindarra joateagatik larrialdizko sorgailuak piztu izan behar zituen Osakidetzarekin edo hurrengo goizera arte berrabiatu ez zen aldiriko tren zerbitzuarekin?

ALTERNATIBA BATEN BEHARRA, INOIZ BAINO NABARIAGO

Itzalaldiaren harira agerian geratu dira gaur egun indarrean dagoen energia sistemaren ahulguneak, baita horiek iraultzeko beharra inoiz baino handiagoa

dela ere. Hortaz mintzatu da Izarkomeko arduradun teknikoak den Asier Garaialde, Naiz Irratian. "Sistema ez horren zentralizatu eta saretuago bat" aldarrikatu du Garaialdek elkarrizketa horretan, astelehenean gertatukoaren gisako arazoek "eragin murriztagoa" izango bailukete biztanleriarengan. "Euskal Herriaren burujabetza" ikuspegi horretan finkatzen dela azaldu du Izarkomeko arduradun teknikoak, eta itxaropena du itzalaldiak kontzientzietan eragina izan dezan, zehazki, norbere baliabideak norberak kudeatu beharko lituzkeela ulertzea gero eta jende gehiagorengana hedatzeko.

EZIN GAZA BURUTIK KENDU

Ezgonkortasuna eta urduritasuna nagusitu ziren ordu horietan egon dira Gazako palestinaren egoeraz oroitu zirenak: "Bizpahiru orduko itzalaldi batek hainbeste kalte egin badigu, nola izango da eguneroko bizitza Gazan?", izan da galdera ohikoena sare sozialetako erabiltzaileen artean. Izan ere, hemen ezohikoa dena han eguneroko ogi bihurtu da, Israel gauzatzen ari den genozidioaren ondorioz. Jada ohikoak dira normaltasun osoz jarduteari utzi dioten ospitaleak, Israelek zerrendara heltzea oztopatu dituen elikagaiak edota zerrendan gero eta urriagoa den edateko ura. ●

MELOI SALTZAILEA

Abaguneak



JUNE FERNANDEZ

Pandemiak agerian utzi ditu, bere gordintasun osoan, zaharren, haurren eta dependentzia egoeran dauden herritarren arreta-eredu neoliberalaren ondorioak. Konfinamendu garaian loratutako diskurtso kritiko eta alternatiba komunitarioak sendotzeko unea da orain". Horrela hasi nuen *Gakoak*-erako idatzi nuen erreportajea: "Zaintza sistema. Kaka ongarri bihurtu". Izenburua elkarriketatu baten aipuari zor diot: "Baliteke, kaka ongarri bihurtu dezakegu. Baina amorrua ematen dit krisi baten bultzakada behar izateak".

Pasa den asteko argindar eten luzeak konfinamenduko egoera ekarri zigun gogora, baina zaurgarritasun ukitu berri batekin. Pandemia aroa hiperkonexioarekin konpentsatu genuen bitartean, komunikatzeko aukera transistoreetara eta auzokoekin hitz egitera (hara!) murriztu da oraingoan. Nik goxo eman nuen arrastia etxean, bakardadeaz gozatzen, liburua eskuan, leihoan zero oskarbiari begira eta belarria erne bizilagunak soroan lan egiten zuen bitartean piztuta zuen irratiko berbak ulertzeko. Alabaina, sare sozialetara sartzea lortu nuenean eta Madrilgo Cañada Real auzoan lau urteko itzalaldia daramatela irakurri nuenean gogoratu nuen itxialdiko lezioa: halako salbuespen egoeren erromantizazioa klase-pribilegioa dela.

Ultraeskuindarrek halako mugarriak baliatzen dituzte beldurrak, gorrotoa eta teoria konspiranoikoak xaxatzeko. Ezkertiarren lana, aldiz, izan ohi da koiunturala dirudien hori krisi sistemikoarekin lotzea. Zaintza krisia izan bazen 2020ko gai nagusia, energiarekiko dugun menpekotasuna utzi du agerian pasa den asteko gertakariak, Eneko Imaz Galparsorok ondoko orriko erreportajeaz alzatu bezala.

Ezohiko itxialdi-itzalaldiak aldaketa sakonak ahalbidetu beharko lituzkeen hausnarketarako abaguneak dira. Hala bizi ditugu askok, nahiz eta eguneroko hautuei dagokionez ere erraza den "normalitate zaharrera" bueltatzea. Nire galdera da zer bultzakada mota behar duten gobernatzen gaituzten psikopatek gizatasunarekin eta zaurgarritasunarekin konekta dezaten behingoz eta, esaterako, Israelgo Estatuarekin harreman diplomatiko, komertzial eta militar guztiak bertan behera utzi ditzaten. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Euskadi industrialia



ULA IRURETAGOIENA

Euskadi markak, eraikuntza sektoreko ekonomiaren estrategian, “industrializazioa” mantrarako hitz gisa hartu duela jakinarazi berri du Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza publikoaren eraikuntzan industrializaturiko prozesu eta elementuak lan guztien %65a izatea eskatuko du. Ez dakigu zehazki zelan definituko duen industrializazioa, baina Euskadi hitzaren ondoan ongi doa, indarra du eta gure iraganarekin loturan jartzen gaitu. Industrializaturiko arkitektura altzairuaren gorakadarekin jaiotakoa baita, eta eraikuntzako lanak tailerrean egitearen funtsa du, eraikuntza lehorra esaten zaio eta horrekin batera arkitekturako lanak “lego edo mekano” baten antza hartzen du, muntatzeko eskulan espezializatuagoa eskatzen duena. Dakiguna da, industrializazioaren alde egiteak eraikuntza “jasangarria”, “segurua”, “kalitatezkoa” eta “azkarra” bilatzen duela Lakuak, eta etxebizitzaren gatazkan lagun izan daitekeela sinesten duela. Eta esan gabe badago ere, bizigarria eta estetikoak izatea bilatu beharko du gainera (espero).

Gaur egungo eraikuntza lan asko “eskuekin” burutzen dira eta *in-situ* obrak bertan. Honek ez du esan nahi artisautzako eraikuntza denik, artisautzak eskulan fin bat suposatzen duelako, ofizio bati lotua, Euskadiko eraikuntzako sektorean galtzen ari den egiteko modu bat. Belaunaldia erretiratutakoan, euskal eraikitzaile artisau gabe geldituko gara. Artisautza eta industrializazioa bateratzeko elkarlan bikainak eman ditzake, baina bi eraikuntza bide ezberdin direnez gero, elkarrekin lanean jarri nahi badira, bultzatu egin behar da, ez da berez emango. Irla Balearretan lan zoragarria egiten ari dira, etxebizitza publikoko administrazioak bertako bio-materialekin eraikitze apustuan. Horren ondoan, Euskadiren irudikapenak industriari lotuta joan nahi du, ingeniaritzaren eta eraginkortasunaren ikurrarekin lurraldetasun eredu jakin bat eraikiz. ●

ANALISIA



PRENSA COMUNITARIA

Kartzelara, herritarrak informatzeagatik?

LEIRE ARTOLA ARIN

2025ean Guatemalan gutxienez kazetari bat hil dute eta beste bat desagerrazi. Arriskutsua da kazetaritza lana egitea herrialde horretan, eta hala jaso du Mugarik Gabeko Kazetariak erakundeak ere, maiatzaren 2an argitaratutako 2025eko Prentsa Askatasunaren Munduko Sailkapenean. 180 herrialdetatik 138. postuan dago Guatemala, iaz bezala, baina puntuazio orokorrean behera egin du: “Degradazio hori gertatu da testuinguru politiko nahasian, non Bernardo Arévalo presidentearen gobernuak konpromiso batzuk hartu dituen prentsa askatasuna defendatzeko, baina kontrara, jarraitzen duten mehatxuek, zentsurak eta indarkeriak”, gogorarazi du Prensa Comunitaria hedabide independenteak.

Hedabide horretako kazetariak ondotxo dakite zer den informazio eskubi-dearen urraketa, besteak beste, ingurumenaren eta jatorrizko herrien eskubi-deen aurkako makroproiektuen kalteen berri emateagatik zentsura eta erasoak jasaten baitituzte etengabe. ARGIAk ere gertutik ezagutu eta kontatu du, Euskal Herriraino iritsi baitziren Solway multinazionalaren mehatxuak.

Baina azken asteetan gogortu egin da Prensa Comunitaria bezalako hedabide komunitario independenteen aurkako jazarpen, difamazio eta mehatxu kanpaina, eta jopuntua pertsonalizatu dute Nelton Rivera fotokazetari eta Prensa Comunitariako sortzailekidearen irudian. Haren argazkia eta izen-abizenak erabili dituzte hainbat zibererasotan, eta haren lana zapuzteko eta kriminalizatzeko hamaika saiakera egiten ari dira. Ministerio Publikoaren ekintzak iragartzeagatik ezaguna den X sare sozialeko profil anonimo batek Riveraren argazki bat zabaldu du kartzelako burdinen atzean, esanez laster José Rubén Zamora kazetariaren alboan egongo dela. Hain zuzen, Zamoraren kasua herrialdeko kazetarien egoeraren erakusle argia da: elPeriodico-ren sortzailea da, eta preso sartu zuten Alejandro Giammattei presidenteari loturiko ustelkeria kasu bat plazaratu eta bost egunetara; zenbait delitu leporatzen dizkiote, eta hainbat eragile eta komunikabidek salatu dute haren aurkako mendeku hutsa izan dela.

Riverarenak ere kutsu bera hartu du, haren aurkako informazio faltsuak ez baitira nolanahikoak: egozten diote gobernuaren defentsan irakurleak desinformatzen aritzea, dirua jasotzea USAID erakundearen eta alderdi politikoen partetik, edota Guatemalan kaosa eta terrora zabaltzea helburu duten nazioarteko antolakunde kriminalekin lotura izatea. Eta ez da sare sozialeko mezuetan geratu: Ministerio Publikoko funtzionarioek ere adierazpenak egin dituzte, Riveraren eta Prensa Comunitariaren aurka prozedura legalak martxan jarriko dituztela mehatxu eginez.

Ez dira gertaera isolatuak, eta ez da kasualitatea hedabide independente eta herritarrekin konprometituak jasatea halako erasoak. Instituzioen eta botere faktikoen inpunitatea azaleratzen duten kazetariak garesti ordaintzen dute adierazpen askatasuna, eta garesti ordainduko dute herritarrek ere, kazetari horiek espetxeratzen edo hiltzen badiutuzte. Informazio eskubidea uneoro defendatu beharreko eskubidea da oraindik ere. ●

48

ikastetxe inguruetakoa airearen kalitatea neurtu du Ekologistak Martxan taldeak Bilbo, Barakaldo, Donostia eta Tuteran. Horietako bakar batek ere ez du lortu Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen duen aire kutsadura maila ez gainditzea. Arrazoi nagusia: inguruko trafikoa handia.

20

urte bete ditu Irungo Lakaxita gaztetxeak. Bidasoaldean okupazioaren bidez irauten duen gaztetxe proiektu bakarra da. Erresistentziaren eta herri mugimenduaren antolakuntza-gune izaten jarraitzen du.

14.000

ikusle eta 200 sortzaile baino gehiago bildu dira Barakaldoko BEC erakustazokan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omentzeko, "Maite zaitut" jaian.

"Hemengo enpresarien etekinak Israelen egonkortasunaren menpe daude"

MANEX MAILHARIN ETA NEREA MITXELENA

Palestinarekin Elkartasuna ekimeneko kideak. Ekimenak liburuxka argitaratu du: "Israel hemen ere hasten da".

ARGIA.EUS (2025-05-05)



"PRESOAK PILATUTA DAUZKATE IRUÑEKO ESPETXEAN"

SALHAKETA ELKARTEA

"Nafarroako espetxe egoeraren mapatzea" txostena aurkeztu du elkarteak Nafarroako Parlamentuan.

2025-04-30

"Bardeetako tiro poligonoak on egin dio biodibertsitatearen jasangarritasunari"

JOSÉ MARÍA AGRAMONTE

Espainiako Defentsa Ministerioa ingurumenarekin "esfortzua" egiten ari dela nabarmendu du Nafarroako Parlamentuan Bardeako Komunitatearen Batzarreko lehendakariak.

2025-06-30



Ilusioan bizi



DIANA FRANCO EGUREN

Pasa den astean, itzalaldian, gure burua zaurgarri ikusita, pertsona asko hasi ginen ikertzen, gertatutakoa ulertzeko asmoz: zelan funtzionatzen du elektrizitatea garraiatzen duen azpiegiturak? Zergatik geratu da zaharkitua? Elektrizitatearen fenomeno fisikoak liluratzen nau, eta gizakiok naturaren indar hori menderatzeko asmatu ditugun moduak. Jende ugari faszinazio bera duela ohartu naiz, modu ezberdinetan adierazita: hausnarketak idatziz, mendekotasuna ekiditeko baliabideak sortuz, ikertuz, sorkuntza-gai bilakatuz...

Asteburuan Asturiasera joan naiz L.E.V (Laboratorio de Electrónica Visual) jaialdira. Nahiz eta musika elektronikoa izan jaialdi horren muina, ez da izan musika horra erakarri nauena. Teknologia sorkuntza-gai edota sorkuntza-bide darabilten sortzaileen instalazioak ikustera joan naiz. Gijon hirian halako zenbait daude, baita Laboral arte zentroan ere. Laboral arte zentroan, sortzaileen lanen gaia zen teknologiak botere harremanetan, adikzioetan, naturaren ezagutza, memorian duten eragina. Hirian zehar banaturikoak esperimentuak ziren. Horietako bat, *Otto-ren Planeta*, Gwenaël François-ek sortua, errealitate mistoko ikus-entzunezkoa zen (irudiak errealitatearen gainean ikus ditzakezu errealitate birtualeko betaurrekoekin). *Otto-ren Planeta* ikus-entzunezkoan, zerbaitek ezinegona sortu zidan... Alabak azaldu zidan: "Planetaren beste aldean zerbaitek gertatzen ari denaren espektatiba sortzen digu, eta alde guztietan ezin gara batera egon". Azalpenarekin ohartu nintzen leku ezberdinetan dena batera baliatzen duen teknologia honen dinamika ez dela film batena, antzerkiarena edo bideojokoena, beste gauza bat dela. Baina ulertu nuen gure burmuina ez dela gai horrelako bizipen bat izateko; horregatik, sortzaileak, istorio bat sortzeko, planetaren alde batean gertatzen zenaren erritmoa motelduz eta ilunduz, gure arreta planetaren beste aldera eramaten zuen, antzerkian fokuekin egiten den gisan. Itzalaldiak ilusioa zer den erakutsi digu, antzerkian bezala, fokua non jarri behar dugun gogoratu digu zenbaiti. ●

Yemenen aurkako gurutzada inperialistara batu da Erresuma Batua

AXIER LOPEZ

Alderdi laboristako Keir Starmer sozialdemokratak gidatutako gobernuak estreinakoz baieztatu du zuzenean hartu duela parte Yemenen aurka AEBek zuzendutako erasoetan. Apirilaren 29 gauean, ehiza-hegazkin ingelesek bonbardatu zuten ustez droneak ekoizteko erabiltzen zen leku bat, Sana hiriburutik gertu.

Starmerren gobernuaren arabera, yemendarren aurka indarkeria erabiltzeari ekin diote "Europaren interes komertzialak defendatzeko" huthien "etengabeko mehatxua" dela-eta. Palestinarrekin elkartasunez yemendarrak Itsaso Gorrian boikot aktiboa egiten ari dira Israelera bidetaren itsasontzien aurka, eta horrek, John Healey Defentsa ministro britainiarraren hitzetan, "milaka milioiko kostua eragin du, eskualdeko ezegonkortasuna handitu eta Erresuma Batuko familien segurtasun ekonomikoa arriskuan jarri du".

Yemendarrek salatu dute bonbardaketa "legez kanpoko eraso basatia" izan dela, eta agerian laga duela AEBak eta Erresuma Batua "aliatuak" direla "Yemenen eta Palestinaren aurkako oldarraldian". Erresuma Batuak gatazkan zuzenean sartu izanaren "ondorioei" aurre egin beharko diela ohartarazi dute: "Erronkak edozein

direla ere, AEB, Erresuma Batua eta Israelgo hirukote gaiztoari eta haren laguntzaileei aurre egingo die Yemenek". 2022tik, Yemengo matxinatu xiiek lurraldearen herena gobernatzen dute, biztanle gehien bizi diren herrialdearen ipar-mendebaldea, Sana hiriburua barne, baita Itsaso Gorriko kostaldearen zati handi bat ere.

AEBek yemendarren aurkako erasoak abiarazi zituztenetik, 800 leku baino gehiago bonbardatu dituzte eta 250 pertsona baino gehiago hil. Orain arteko eraso lazgarrienetakoak azken asteetan egin dituzte. Apirilaren 18an 80 lagun hil eta 150 zauritu zituen, eta apirilaren 28an 68 hildako eta 47 zauritu eragin zituen.

ISRAELEN DEFENTSAK GAINDITU DITUZTE

Yemendik ia etenik gabe jaurtitzen dituzte misilak Israelen aurka, eta maiatzaren 4an horietako batek jo du Ben Gurion aireportu nagusia eta ia bakararra Israelen Tel Avivetik gertu. Erasoa sei pertsona arin zauritu dituzte. Lehen aldia da huthiek sionisten misilen aurkako defentsa-sistema sofistikatua gainditu dutena. Horren harira, ondokoa adierazi du gobernu genozidaren Defentsa ministro Israel Katzek: "Min egiten digunari zazpi aldiz gogorrago joko diogu". ●



Askatasunaren Ontzidia bonbardatu dute

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Maiatzaren 1etik 2rako gauean dronekin egin diote eraso Gazako blokeoa apurtu eta genozidioa salatu nahi duen nazioarteko ekimenaren itsasontziari, Maltatik hamahiru miliara, nazioarteko uretan. Aktibisten artean Mikel Zuluaga *Mikelon* euskal herritarra dago. "Hemen hau egiten badute, zer ez dute egingo Palestinan" adierazi dio Maltatik ARGIAri.

"Conscience (kontzientzia) itsasontzia gaur 00:23an dronekin bonbardatu dute, nazioarteko uretan Maltatik gertu. Palestinako herria jasaten ari den setioa eta genozidioa salatzeko xedez, mundu osoko berrogeita hamar bat aktibista Gazarako bidean itsasoratu behar zirenean, laguntza humanitarioa itsasoz sartzeko, itsasontziaren branka bi aldiz jo dute. Sua eta kroskoan haustura eragin dituzte". Hori da Askatasunaren Ontzidia ekimenetik jakinarazi dutena.

Maltan dagoen ekintzaileetako bat da Mikel Zuluaga. ARGIAri Maltatik telefono elkarrizketan azaldu dionez, erasoaren unean tripulazioa zegoen soilik ontzian, aktibistak lurrean zeuden ontziratatu zain. Munduko 21 herrialdetako 50 militante inguru ziren ontziratzeak. Ez dakite zenbat dronek hartu duten parte erasoan, baina bat baino gehiago izan dela ziurtatu du. "Ontziaren sor-



MARINETRAFFIC.COM

gailua apurtu dute, eta kroskoan zuloa egin".

Zuluagak fokua Palestinako egoeran jartzea eskatu du, eta ez ontzian edo ekintzaileengan. Hirugarren aldia da Zuluagak ontzidiaren sabotajea pairatzen duena, baina harrituta eta haserre azaldu da halere. "Israelen inpunitatea ez sinestekoa da. Aurretik egin dituzte abordatzeak, oraingoan 2024koan bezala uste genuen arazo teknikoak planteatuko zituztela itsasoratzea ekiditeko... baina bonbardatu egin dute ontzia, bonbardatu. Hemen hau egiten badu-

te, zer ez dute egingo Palestinan. Basakeria hutsa da". Askatasunaren Ontziditik Zuluagaren adierazpen bat zabaldu dute. Hala dio bertan: "Mundu guztiak badaki, baita beste alde baterantz begiratzen dutenek ere, Palestinan sarraski izugarria egiten ari direla, gizateriaren historiako pasarte ilunenekin parekatu daitekeena. Eta Europako botereek ez badiote hilkintza honi irmo erantzuten, herritarrok egin beharko dugu; bestela, sarraskiaren konplizeak izango gara, Alemania nazian errausketabeak ukatzen zituztenak bezala". ●

MOTZEAN

Aroztegiko auzipetuei elkartasuna adierazteko kanpaldia egiten ari dira maiatzaren 4tik 10era. Baztango zazpi herritar epaituko dituzte maiatzaren 19tik 23ra, eta zazpienez absolutzioa aldarrikatuko dute kanpaldian, Aroztegiko Elkartasun Komiteak antolatuta.

"Planeta suntsitzen duen su turistikoa amaitzeko" manifestaziora deitu du Turistifikazioaren aurkako Europa Hegoaldeko sareak, ekainaren 15ean. "Turismo-monolaborantzaren aurka", hamabost eragile inguru batu zaizkie, tartean Donostia, Bilbo eta Iruñekoak.

Antton Valverde musikari donostiarra jasoko du Adarra saria, ekainaren 21ean, Viktoria Eugenia antzokian, eta kontzertua emango du jarraian. "Euskal kantagintzan izandako eragina" nabarmendu dute, hala nola "herri kanten eta bertso zaharren berreskurapenean".

Haur eta gazte transexualitatearen inguruko I. Nazioarteko Biltzarra antolatu du Naizen elkarteak, maiatzaren 5-6an, "Ulertu, lagundu ahal izateko" izenburupean. Hainbat ikuspegitatik heldu zaio gaiari: soziologikoa, psikologikoa, sexologikoa, psikiatrikoa...

FROM GROUND ZERO: GENOZIDIOA LEHEN PERTSONATIK KONTATZEN DIGUN FILMA

2024ko urtarrilaren eta uztailaren artean Gazan filmaturiko 22 film laburrez osatua da *From Ground Zero* filma. Rashid Masharawi palestinar zinegilea dugu egitasmoaren oinarrian, eta 2023ko urriaren 7az geroztik Gazari buruz entzuten diren zenbakiei aurpegiak jartzeko asmoz lotu zitzaion ariketa gogor horri. Bertako 22 zinegilerekin harremanetan, eta bakoitza bospasei palestinarrekin sorkuntzan dabilela, ehun bat familirekin harremanetan

tan dagoela dio Masharawik, eta horrela egi-ten dio ekarpena bere sorlekuari: "Ehun bat familia horiekin harremanetan naiz, entzuten ditut, laguntzen ditut, eta hori ez filmari begira bakarrik. Horrela ez nabil soilik albigiaren aitzinean negarrez, aktibo ere bainaiz eta lagungarri zait". 2023ko urriaren 7az geroztikako Gazako ahotsa kausitzen dugu *From Ground Zero*-n eta film bat baino anitzez gehiago da: genozidioari buruzko frogak dira.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Oraingoaz, 52.314 palestinar hil ditu Israelek Gazan, 2023ko urriaren 7az geroztik. Dozenaka kontatzen dira egun bakoitzean hildakoak, eta ohitu gara zenbaketa horri, baita ospitaleen bonbardaketei zein laguntza humanitarioaren blokeatzeari ere –"Badira 50 egun laguntza humanitarioaren sarrera erabat blokeaturik daukara Israelek" dio goiz honetako albiste batek munduari. Gazatik datorren beste albiste bat: "Bulldozerren suntsiketengatik hondakinen peko gorputzen bilaketak gelditu behar izan dituzte". Horri ere ohituko gara: Gazako bulldozerren xehatzen dabil Israel. Iragan astean, astelehenetik ostegunera 30 eta 40 bulldozer suntsitu zituen Israelek, Nazio Batuen Erakundearen arabera. 11.000 gorputz daude eraikin bonbardatuen azpian, eta 50 milioi tona hondakin astun dituzte metaturik. Eraikinen %90 baino gehiago erabat suntsiturik dutelako Gazan.

Zenbakiak. Hotzak. Zenbaki horien giblean bizirauten dabiltzan bizi suntsituen erakusleia dugu *From Ground Zero* filma. Hiru eta zazpi minutu arteko 22 film laburrez osaturikoa, guziak 2024ko urtarrilaren eta uztailaren

artean Gazan filmatuak, hots, 2023ko urriaren 7az geroztik. "Zenbakiak zaizkigu mintzo hastapenetik. Aurpegiak eta bizipenak jarri nahi izan dizkiegu zenbaki horiei", dio Laura Nikolov ekoizleak. Rashid Masharawi zinegilea dugu egitasmoaren oinarrian, bera ere gazatarra dena, baina urteak daramatzana bertara ezin sarturik. "Gazatik atera zen, film festibal batentzat eta ez zuten berriz utzi sartzen. Ramallahn (Zisjordania) instalatu zen, baina hor gauza bera, film festibal batentzat atera eta ez zuten berriz utzi sartzen. Orain Europa eta Zisjordania artean dabil", Nikolovek zehaztu duenez. Urriaren 7aren biharamunak ikusirik, Gazako senideei eta lagunei proposamena luzatu zien Masharawik eta errezipitu zituzten sorkuntzak. "Libre zarete, nahi duzuena kontatu, nahi duzuen formatuan", izan zen luzatu zien ariketa. Zinegileak dira oinarrian, baita lehen filma ere dutenak, "kamara beraien kontatzeko arma bat dela ohar-tu direnak". Sorkuntza horiek bildurik, "gerra horren memoria osatzea eta babestea" du xede erbesteraturik dagoen zinegileak.

Palestinaren aldeko Zuberoako kolektiboak gomitaturik, Donapaleuko (Nafa-

rrua Beherea) zinema aretoan egon zen iragan astean Nikolov, proiektzioaren ondoko galderei erantzuteko. Hitza hartu zuen emanaldia aitzin: "Hamaika film laburren buruan hiru minutuko pausa ukanen duzue. Ez duzue ateratzeko astirik ukanen, justu arnasteko hiru minutu izanzen dira, beste hamaikekin segitu ahal izateko". Egiari zor, erabat suntsitutako Gazako hamaika palestinarren intimitate suntsitua filtrorik gabe jasota, lagungarri zaizkio hiru minutu horiek ikusleari. Ez da egon galderarik edo oharrik, hiru minutuko isiltasuna izan da. Arnasteko. Ekoizleak mikrofona hartu eta tonu eztian ondokoa bideratu die publikokoei: "Filmaren zati honetan gogoko dut ohartaraztea zinegile guztiek segitzen dutela bizirik. Suerteia izan dute. Suerte kontu bat dela diot, Gazan nehork ez dakielako eguna bizirik ala hilik bukatuko duen".

"Euriaren antzera erori zaizkigu hondakinak gainera" dio Musab gazteak *24 heures* (24 ordu) film laburrean. Egun bakarrean bi aldiz izan da Israelen bonben jomugan, eta bietan galdu ditu senideak. Telefonoz grabaturiko irudiek argi uzten dute drama hori ez dela fikziozkoa: negarrak, oihiak, aurpegi ika-



NO SIGNAL film laburra, Muhammad Al-Sharif-en eskutik.

ratuak, minak eta ezinak. Ezinak, hain justu, familiako kide batzuk betirako utzi behar izaten dituztelako hondakinen pean, ezin aterata. Momentu hori kontatzen du *No Signal* (Seinalerik ez) sorkuntzak ere, zeinetan hondamendien azpian daukan anaia bilatzen dabilen gizon mindu bat, ezinegonagatik zentzua kasik galdurik. Neska ttipi bat heldu zaio laguntzera, israeldar hegazkinen mehatxuen artetik pasaz. "Zer zabilta hor? Sartu zaitez aterpera!", eta erantzuna: "Aita bilatzen lagundu nahi zaitut". Bonben mehatxua handiegia dutela, bilaketa utzi behar izaten dute, aita hori gorputz ala gorpu den argitu gabe. "Zin dakizut bihar itzuliko garela bilatzera".

Etxe eraitsiak omnipresente dituzte, dena dute grisa eta apurtua inguruan. *Sorry cinema* (Barkatu zinema) film laburrean ageri da: "Bonbardaketaz bonbardaketa ihesi goaz, etxe suntsitu batek bestera, bizirautea da gure erronka", dio Ahmed Hassounak egilearen off-eko ahotsak. Badakigu guk ere, "eraikinen %90 baino gehiago dago suntsituri" datua heldu zaigulako, baina zabor mendi grisen artean bizitze horren esanahia dakar *From Groud Zero*-k. Jendetza bizi da Gazan, bi milioi pasa dira 360

"Droneen soinua da Gazako soinu-banda. Gau eta egun dute etengabeko burrunba hori. Ukandako bideoetan ez zegoen bakar bat hegazkin edo drone soinurik gabekoa"

Laura Nikolov, ekoizlea

kilometro koadrotan metaturik, etxerik gabe eta bertatik atera ezinik. Ageri dira, biziari atxiki nahian, harri meten artean ibilki, hegazkinen eta droneen soinu etengabea, ur-xorta bat, jateko zeozer edota telefonoa kargatzeko pris bat atzeman nahian. Aldi oro dituzte sekulako jende lerroak, denak luzeegiak: Gazan ez delako guzientzako jakirik eta urik. Baina, hala ere, eskuak hutsik itzuli arren, duintasuna. Palestinarren duintasuna bada film horretatik ateratzen den osagai nagusietarikoak.

Noizean behin, pakete humanitario zenbait ikusten dituzte urrunera, zeru-

tik behera eta badoazte, lasterka, dena utzita, hatsanturik eta nekaturik, bat atzeman nahian. Paketeak zulaturik, irina hareari nahasita, lurretik biltzen ari direnak ageri dira *Sorry cinema*-n.

Kaosaren erdian biziraun beharrean, zinegile izateko ametsa alde batera uzteko damua kontatzen digu ere film labur horrek. Genozidioaren bihotzean, kosta ahala kosta arteari lotzeko beharra baina ezina agertzen da sorkuntza andanatan. Zinegileak, idazleak, umoristak, musikariak, txotxongilo-egileak, margolariak... artea bizi da Gazan, eta aitzina egiteko ezinbesteko arma ere dutela erakusten digu *From Ground Zero*-k.

Hors Cadre (Koadrotik kanpo) film laburrak artista baten gogoetak jasotzen ditu. Etxe suntsitura itzultzearen mina partekatzen digu egileak. Margolaria da bera, eta hondamendien artean galdutako obregana itzultzen da. Batetik bestera pasa eta Israelek suntsitutako ametsak aipatzen dizkigu: "Unibertsitatera sartzeko bidea xehatu didate, eta unibertsitatea bera digute suntsitu. Ez da gehiago bakerik, ez da gehiago bakekulturarik, bake hiltzailea da daukaguna. Banekien gerran ginela, baina inoiz ez nuen irudikatu neukana suntsitzen



HELL'S HEAVEN film laburra, Karim Satoum-en eskutik.

ahalko zidatenik. Gerrak ez du nehor saihesten". Finean, oihalezko aterpeen pean dira orain kasik gazatar guziak: "Oihal-etxeak eta jende deprimitua, besterik ez dago", dio idazle batek *Offrandes* (Eskaintzak) film laburrean.

GAUA INFERNU

Umeak. Umeak ere ageri dira anitz. Gaua infernu dute Gazako haurrek eta ez dute lorik hartu nahi, lo zeudela erori zitzaielako bonba bat gainera, familiakoak betirako eramanda. *Farah & Miriam* sorkuntzako protagonistak ama, ahizpak eta ttantta galdu ditu bonbapean, ttantta hondamendien artetik sekula ezin izan dutela atera. Bere lagun batekin ageri da ibilki, behin etxe izan zuen harri metaren gainean. Gogoan iltzaturik duen arkitekturari segi, badabil izandako hura deskribatzen: "Begira, hemen nuen ganbera". Berea orokortu eta ondokoa dio ttipiak: "Gure buru osasuna xehatua da". *Peau douce* (Larru ezti) animazioan ere umeen traumak ditugu nagusi. Umeen gorputz atal ezberdinetan beraien izenak idazteko ohitura harturik dute gurasoek, bonben pean kausituz gero, esku artean dutenaren identitatearen berri jasotzeko sokorriek. Marka horiek lanjerra eta drama oroitarazten diote

Proiektzio oro argazkia hartu eta
Gazako zinegileei bidaltzen diete,
"jakin dezatela beren sorkuntza
ikusita dagoela,
jakin dezatela ez direla ahaztuak"

istorioko umeari, gauaren erdian erori daitekeen bonbaren abisutzat duelako. Ezin lokartuta dagoela, ondoan daukan anai ttipiari ezabatzen dio besoan idatzitako izena: "Kentzen dizut lasai lo egin dezazun. Badakit sensibleria zarela eta amets gaiztoak saihestu nahi dizkizut". Ipuinen, kantuen zein dantzen bidez, haur horiei irria atxikiarazteko eginbeharrean dabiltzanen berri ere badugu. Horien artean dira *Non* (Ez) film laburreko musikariak. Beraingana doa Hana Eleiwa ekoizlea, hain justu, heriotzaz eta minaz hitz egin beharrean, poza eta esperantza irudikatzeko. *Bihar ahaztuko ditugu krisiak, bihar berriro izanen dugu irri ederra aurpegian* errepika

ozenki kantatzen dabilta, eta finean, sorkuntzako pasarterik tristeneetarikoa dugu, palestinarrentzat etorkizun airos bat irudikatzea ezinezkoa balitzaigu bezala. Baina, beraiek irria dute aurpegian, eta pareko haurrek ere bai. Baliteke hori izatea bizinahia. Edo duintasuna..

OFF-EKO AHOTSA, ARMAIRU BARNETIK

Israelen hegazkinen eta droneen arrabotsa da entzuleari gelditzen zaion osagaia. Alta, soinu parasito hori arintzeko ariketa samurra ohartarazi du Nikolovek: "Droneen soinua Gazako soinubanda da. Gau eta egun dute etengabeko burrunba hori. Ukandako bideoetan ez zegoen bakar bat hegazkin edota drone soinurik gabekoa. Filmak entzungarri izateko sekulako garbiketa egin behar izan dugu postproduktzio fasean". Gauza bera off-eko ahotsentzat, zinegile batek bidea asmatu, guztiei pasa zieten trukoak: armairu batera sartu, bururdikoz eta estalgiz estali. Horrela bakarrik lortu dezakete gerra soinurik gabeko soinua.

Nola ez, kamara, mikrofono ala beselako filmatzeko materialik ezin izan zieten bidali Gazara eta bertan zuten apurra batu eta elkarri prestatuta grabatu zituzten sorkuntzak. Kanpora bide-



MASHARAWIFILMS

ratzearena ere desafio zaila izan zuten: Israelek Gaza munduaz mozturik due-lako, internet bidez pasa behar izan zituzten ekoizpenak, eta ospitaleetara edo kazetarien lantokietara hurbildu behar izan zuten konexio hobea kausitzeko. "Horrek erran nahi du bonba arrisku handiko guneeetan egotea. Zinegileek bizirik segitzen dutela erran dizuet, baina santza kontu bat da. Kasu batzuetan bertan egon eta bizpahiru orenen buruan bonbardaturik zituzten gunek".

"Masharawik 24 ordu 24ren gain pasatzen zituen bertako berriak entzuten, arabiarrez baita hebrearrez ere, Ga-

zan gertatzen zenaren mapa bat osatu nahian, filmatzerakoan bonbardaketak saihesten saiatzeko". Estresaz eta beldurrez betetako sorkuntza izan da. Noizbehinka gelditu behar izan zituzten filmaketak, lan taldeko batek bere hurbileko bat galdurik. *Taxi Wanissa* film laburrak, hain justu, hori kontatzen digu, ipuinaren haria moztu, kamera bere aldera itzuli eta bere senide baten heriotzaren berri emanez jartzen diolako bukaera osaturiko kontakizunari.

Baina, internet mozketen gainetik eta bonben azpitik, osatu dute *From Ground Zero*, eta mundu mailan zabaltzen da-

biltza –hamabost hizkuntzetara itzulita dago, frantsesera eta gaztelerara barne-. Proiektzio oro, argazkia hartu eta Gazako zinegileei bidaltzen diete, "jakin dezatela beren sorkuntza ikusita dagoe-la, jakin dezatela ez direla ahaztuak". Bigarrena sortzen dabiltzala ere jakitera eman du Nikolovek. Zinegile berak dabilta lanean, baina aldi honetan film er-tainak dituzte bidean. Lehen filma hasi zutenean 25.000 hildako ziren, bigarre-na bidean dutela, bikoiztu egin da kopu-rua. Urte bat pasa da bien artean. Film bat baino gehiago da *From Ground Zero*, autopsiarako froga ikaragarria ere da. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Laura Nikolov

Ekoizpenaren koordinatzailea

“ARTXIBO-DOKUMENTUAK DIRA, BETIRAKO GELDITUKO DIRENAK”

Gaza barneko errealitateen berri dakar *From Ground Zero*-k.

Rashid Masharawik bultzatutako proiektua da. Bera gazatarra da, bere familia guzia du Gazan. Urriaren 7aren biharamunak ikustearekin, laster ohar-tu ginen gazatarren hitza ez zela entzuna, zenbaki hutsak zirela, eta horregatik nahi izan dugu istorioak kontatzeko aukera sortu. Gaza barneko hitza kanpora aterarazi dugu eta aurpegiak eta biziak jarri dizkiegu zenbaki horiei. Biziki berezia da, zinegileek beren biziaz erakutsi nahi izan dutena jaso dugulako, eta aldi

Hastapenean baino zailtasun gehiago dugu filmetako kideak non diren jakiteko. Astez aste mehatzen ikusten ditugu

berean, artxibo-dokumentuak direlako, garai horri buruzko testigantzak dira,

betirako geldituko direnak. Rashidek dioen gisara, beraien eta hurbilekoen biziak salbatu nahian dabiltzala, beren historia salbatu nahian gabiltza gu.

Urte bat pasa da grabaketetatik, eta dramak berdin dirau. Nola ikusten dituzue zinegileak?

Egoera ez da batere erraza, ahumanoa da Gazako errealitatea. *Sorry Cinema* film laburrean erraten du, baina Gazan suerteak egiten du bizirik segitzen duzula. Emozionalki eta psikologikoki ez dira batere-batere ongi, denak dira hondatuak. Gosete handia bada, dena dute eskas. Su-etena arte bazuten filmean ageri den dinamika hori, menia etorri arte irauteko borondate hori; baina su-etena hautsiz geroztik, egoera biziki-biziki konplikatu zaie. Hastapenean baino zailtasun gehiago dugu non diren jakiteko. Astez aste mehatzen ikusten ditugu. Batzuk izugarri eri egon dira, baina bizirik segitzen dute. Bizirik badi-ra ere, gaizki dira. Gazan ezin duzu ongi izan, ezinezkoa da. Baina, aldi berean, esperantzari eta biziari lotzeko duten gaitasuna ikusita, pentsatzen dut ez digutela dena erraten. Biziki duinak dira eta duintasun hori ageri da filmean.

Nazioartea isilik dabil. Horri begira zer sentitzen duzue zuek, Rashid Masharawi eta zu zuek?

Hasteko, haientzat iraun behar dugu guk. Hori zor diegu. Baina, egia da zai-



MASHARAWIFILMS



Laura Nikolov, Rashid Masharawi-ren ondoan.

LES INROCKS

la dela, ezintasun sentimendu handia dugu. Bigarren film baten egiteko erabakia hartu dugu, lekukotasunak aterarazten segitzeko. Aldi berean, *From Ground Zero*-ren emanaldietan egoten gara eta ikusten dugu jendea badela proiektzioetan. Publikokoek beraiei ezintasun sentimendua partekatzen digute ere, baina, jakin behar dute hor izate hutsa biziki inportantea dela. Proiektzio guzien berri ematen diegu zinegileei, ikus dezaten ez direla bakarrik. Filmak bide luzea egin du eta poza eragin die. Oscar Sarietarako hautatua izana gauza handia izan zen beraientzat, entzunak izanaren sentsazioa zutelako.

Oposiziorik ukan duzue bidean?

Bidea moztu gabe ere, existitzen ez bazina bezala egiten duten horien jarrera da oposiziorik bortitzena. Nire ustez egitasmo ikaragarria da *From Ground Zero*, eta ez dugu ulertzen nolaz festibal batzuek ez dioten arretarik bideratu, hain justu, baldintza gogorretan egingako pelikulak argiratzea delarik haien zeregina. Adibidez, Cannes Festibalak

Ezin jakin hilik ala bizirik segituko duzun Gazan, beraz horrela kokatzen dira: hiltzekotan, behintzat zerbait kontaturik hil nazatela

erabateko *blackout*-a egin digu. Baina, bestelako oposizioei buruz, ez dugu intimidaziorik jaso, ez bada AEBetan momentu batean bideraturiko aurkako kanpaina.

Bigarren filmari begira ez zarete beldur? Israielek presio gehiago jarriko duelakoan edo bonben jomuga izanen zaretelakoan?

Gisa horretako presioen berri ez digute helarazi Gazatik. Haatik, badakit orain arte Rashidek [Masharawi] nahi izan dituelarik grabaketak gelditu, beraiek ziotela ezetz, aitzina segitu nahi zute-

la. Dena dela, ezin jakin hilik ala bizirik segituko duzun Gazan, beraz horrela kokatzen dira: hiltzekotan, behintzat zerbait kontaturik hil nazatela.

Zinemagintzan duten lehen esperientzia izan da batzuentzat, eta gustatzen zaiela deskubritu dute. Bizi dutena adierazteko, erakusteko eta partekatzeo kamerak duen botereaz jabetu dira. Naturalki egin da bigarren filmerako jauzia eta zinegile berekin segitzen dugu, beste istorio batzuk dituztelako kontatzeko.

Eta nola doa Palestinako zinegintza?

Finantzamenduei eta sariei dagokionez, 2023ko urriaz geroztik ikusten duguna da ondoko filmei bideratuko zaizkiena: erbestealdian diren palestinarrez mintzo direnak, Palestinan filmatuak ez direnak eta koproduktzioa dutenak, finean, bi begirada ukanik justuagoak izango balira bezala. Bilakaera hori begi-bistakoa da. Bestalde, zulo bat egonen da film palestinarren ekoizpenean, ez delako, behintzat Frantziaren eta Alemaniaren partetik, ia finantzamendurik egon 2023ko urriaz geroztik. ●

Carme Puig Antich

LEKUKOAREN ZUZIA



SAIATZEN ZARA HAU ETA HURA EGITEN, BAINA HORTXE DA BETI SALVADORREN HERIOTZAREN ZAURIA



Salvador Puig Antich frankismoaren kontrako militantea izan zen. Askapen Mugimendu Iberikoko kidea, 1973ko irailaren 25ean atxilotu zuten. Gerra-kontseilua egin zioten, eta garrotez exekutatu zuten handik sei hilabetera, 1974ko martxoaren 2an. Aurtengo otsailean baliogabetu du zigorra Espainiako Gobernuak.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Zuen neba Salvadorrek 25 urte zituen hil zutenean.

26 beteko zituzkeen maiatz hartan. Nik, berriz, 18 urte nituen. Salvador zen oso alaia, oso libertigarria, eta, horrekin batera, oso sentibera, ez zitzaizkion injustiziak gustatzen. Eta ez dakit nondik zetorkion zera hori, oso berea baitzuen injustizia ez jasatea. Alegia, gure ama zena oso ona zen, oso katolikoa ere bai, baina Salvadorren kasuan, ez dakit zerk jarri zuen borroka hartara. Eta, egun batean, atxilo hartu zutela jakin genuen.

Nola jakin zenuten?

Inork ez zigun hots egin. Hori, hasteko. Ez Poliziak ez inork. Oroitzen naiz ahizpa zaharrena [Inma] eta biok nora edo nora

gindoazela oinez, Bartzelonan barrena, eta garaiko *El Caso* egunkarian irakurri genuela albistea, Francisco Anguas hil zela, eta Salvador atxilotu zutela. Ez dakit Heinz Chez [garrotez hilko zuten hau ere] aipatzen zuten. Albistearen arabera, ospitale klinikoan ingresatuta zegoen. Gaitz erdi!

Gaitz erdi? Zer esan nahi duzu?

Ez zeukatela gatibu Poliziaren Bulego Nagusian, han egurra latz ematen baitzuten. Hortaz, klinikora joan ginen, eta sartu areto batera, eta 30 *gris* ere [Espainiako Polizia Nazionalea] ikusi genituen. Inmak eta biok, berriz, esan genien Salvador neba genuela eta ikusi nahi genuela. Goitik behera eta behetik gora miatu

gintuzten. Ni, artean, erizaintza ikasten ari nintzen, amaitzeko zorian nengoen, eta liburuak neramatzan. Eta poliziek nire liburuak ere hartu, eta arakatu zizkidaten.

Salvador ikusi ahal izan zenuten?

Ezta pentsatu ere! Esan ziguten gure nebaren gelara sartzerik ez genuela. Hala ere, Salvadorren gelako atea irekita zegoen, kontrolatuta edukitzeko, eta, hortaz, zer edo zer ikusi ahal izan genuen. Esate baterako, esku eta hanka esku-bilurrez lotuta zeukatela. Ikaragarria! Hitz egiteko modurik ere ez zeukan, tiroa bota baitzioten, eta matraila zartatu zioten. Likidoa besterik ez zuen edaten, las-totxo baten bitartez. Eta, orduan, garra-



Carme Puig Antich

BARTZELONA, 1954



Frankismoak 1974an garrotez hildako Salvadorren arreba. Espainiako Estatuan garrotez hildako azkena. 50 urte eta gero, aurtengo otsailean baliogabetu zuen Madrileko gobernuak Salvador Puig Antich militante anarkistaren heriotza-zigorra. 50 urte hauetan, batzuen eta beste artean isiltasunetik argira ekarri dute Salvador hura, film, liburu, lekukotasun eta diren eta ez diren bideen bitartez. Merezimendu merzitua dute, oroz gain, hildako borrokariaren arreba Inma, Montse, Carme eta Merçona Puig Antich.

sika hasi ginen: "¡Salvador! ¡Salvador! ¡Que estem aquí! ¡Estem aquí!".

Hemen gaude!

Garrasika, gero! Baina Salvadorrek ez zuen guri erantzuteko modurik. Ez ziguten ikusten utzi Modelora [Bartzelonako kartzela, garaian] eraman zuten arte. Han, ikusi genuen, behintzat. Barrrote artean. Ez ziguten utzi katalanez hitz egiten, baina, jakina, hori konstante bat zen Bartzelonan eta Katalunian. Eskerrak ama hila zela ordurako, ez zuen sufrikario hura bizi izan. Urtea lehenago hil zen, minbizi batetik. Eta, badiotsut, eskerrak, zeren ez baitzuen Salvadorrena jasango. Oso latza izan baitzen. Gure aitari ere heriotza-zigorra eman zioten [1936ko] gerran. Bilbon eduki zuten, eta, gero, zigor hura konmutatu zioten.

Eta ez duzu uste aitaren iraganak ere Salvadorri eragitea?

Ez, etxean ez baitzen horretaz batere hitz egiten. Gure aita beldurrez bizi zen, ez zen politikaz bihirik ere hitz egiten. Ez zuen gerra konturik aipatzen. Aitak gabe, amak kontatzen zigen zer edo zer noizean behin, gu hazi ahala. "Ni halako gizon batekin ezkondu nintzen, baina kartzelatik irten eta etxera itzuli zenean, beste bat zen". Aita zeharo jota zegoen, gizajoa!

Salvador, Modelo kartzelan.

Harrezkero, astean bi aldiz ikusten utzi ziguten. 20 minutuko bisitak ziren, eta lau ahizpak denak batera sartzen ginen. Bost izan bagina, ez ziguketen utziko. Gure kasuan, neba zaharrena, Quim, psikiatra zen, eta AEBetan bizi zen. Hemen psikiatria oso atzeratuta zegoen garaian joan zen hara, eta hantxe egin zuen bizimodua. Salvador hil baino hilabete lehenago etorri zen, ustez momentu batetik bestera hilko zutela, eta batere uste ez genuela etorri zen Bartzelonara. Gurasoen etxera sartu eta: "Hil dute ja?". Eta guk: "Ostia, Quim, oraindik ez!". Artean ez zioten egin gerra-kontseilua. Modeloko zuzendariari joan gintzaizkion, Salvador bost anai-arrebok ikusi ahal izateko, eta baimena eman zigun, Salvadorren jokaera ona argudio. Hala ere, aitak ez zuen Salvador ikusi.

Zertan ziren bisitak?

Txorakeriak esaten ematen genuen denbora. Berak adoretzu plantak egi-

ten zituen, eta guk ere bai. Ahizpak ni baino liburuzale handiagoak ziren, eta nobelak-eta eramaten zizkioten Salvadorri, baina hark ezetz, ez zuela gisa hartako nobelarik irakurtzen. Pentsamendu liburuak irakurtzen zituen. Eguna irakurtzen ematen zuen. Gainera, bakartuta zeukaten. Patiora eramaten zutenean ere, bera bakarrik, funtzionarioa beste konpainiarik gabe.

Gerra-kontseiluaren eguna heldu zen, halako batean.

Dena arin batean gertatu zen. Eta orduan eta arinago, Carrero Blancorena eta gero. "Salvador akabatu eta kito!", pentsatu bide zuten. Espainiak, edo Francok, emandako zigorra. Gainera, katalana! Eta badakizu zer tirria diguten Espainian katalanoi. Gerra-kontseiluan izan ginen. Fartsa hutsa. Ez lekukoen testimoniorik, ez medikuen hitzik, ez zieten deklaratzeko utzi. Poliziek beste inork ez zuen deklaratu. Eta abokatuak [Oriol Arau] Salvador atxilotu zuten polizietako bati: "Eta zenbat kulata-kolpe eman zenizkioten atxilotuari?". Eta: "Bat". Eta abokatuak behin eta berriz galdetzen zien, gero eta zorrotzago, eta, azkenean, zazpi kolpe ere aitortu zituzten.

Zazpi kulata-kolpe...

Kalean atxilotu zuten, eta kolpeka, odoletan utzi zuten Salvador, eta saltsa kalean, eta jendea begira, eta sartu zuten bebarru batean [Girona kalea, 70]. Gure abokatua Oriol gaztea zen, gogotik saiatu zen, egunero joaten zitzaion Salvadorri bisitan. Baina epaiketa hura fartsa hutsa izan zen, han ez zegoen justizia bermerik batere. Ostiraleroko, Ministroen Kontseilua izaten zen Madrilen, eta haiek erabaki behar zuten Salvadorren heriotza-zigorra gauzatzea. Eta, horrela, ostiralean, martxoaren lehenengoan, iluntzeko zortziak edo bederatziak aldera, Salvador hurrengo egunean hilko zutela jakinarazi zigun Oriolek. Denok bildu ginen, eta Modelora zuzenean! Gure nebarekin eman genituen kaperako hamabi orduak. Ostiralean heriotza-zigorra onartu, eta larunbatean hil zuten.

Gau latza.

Oso latza ere. Abokatuen Elkargoa bikain portatu zen. Batera eta bestera deitu zuten, aita santuari eta behar zen guztiari, erruki eske. Baina goizeko lauretan, Oriol sartu zenean,



haren aurpegiera ikusi genuen, etsi genuen. Gure ahizpa Monsek ezin sinetsi zuen: "Gure amak zer edo zer egiten asmatuko du zerutik!". Ahizpa ttikienak, Merçonak, 11 urte zituen, eta ez zioten sartzen utzi. Grabatuta dauka. Ezin izan zuen Salvador despeditu. Gu gaueko hamaikak aldera sartu ginen kartzelara.

Garrotez hil zuten Salvador.

Espainiako Estatuan garrotez hildako azkena da...

Auzitegi militarra zen! Lege militarren arabera, fusilamendua behar zuen, ez garrotea! Carrero Blancoren heriotzagatik, ahalik eta heriotzarik krudelena opa zioten Salvadorri. Uste horretan nago. Montjuicen hobiratu genuen eta, gero, isiltasuna. Tabua. Ez genuen hartaz hitz egiterik. Franco hil eta gero ere, eta urteak joan eta gero ere, isilik egon behar izan genuen! Jendeak ere ez zuen ezer esaten

“

Denok bildu eta Modelora zuzenean! Anaiarekin eman genituen kaperako hamabi orduak. Ostiralean heriotza-zigorra onartu, eta larunbatean hil zuten"

eta, bestalde, sumarioak eta gainerakoak, itxita zeuzkaten, gordeta. Oso hurrekoekin besterik ez genuen Salvadorrez hitz egiten. Inora joan, banketxera, edo dena delako tokira, eta ez genuen bigarren deiturarik esaten: Carme Puig, edo Inma Puig, edo Montse Puig... eta kito. Berdin jokatu genuen etxeko guztiok.

Bigarren deitura ere eskatuko zizueten noizbait, ordea.

Bai. Eta, orduan, era guztietako erreakzioak izaten ziren. Batzuek, hunkituta, besarkatu ere egin izan gintuzten. Oiloipurdia egiten zait oraindik. Hamabost urte ere iraun zuen isiltasunak eta, gero, egun batean, TV3ko kazetari batek, Francesc Escribanok, ahizpok afaltzera eraman gintuen, eta, ondoren, gauez, zeharo ilunduta zegoela, telebistaren egoitzara. Barruan ere dena ilun zegoen. Aulkietan jarri gintuen, eta elkarrizketa egin zigun.



TXIKI

"Cerdanyolan nintzen Txiki fusilatu zutenean. Ez, hala ere, lehen lerroan, Magda [Oranich] edo Txikiren anaia [Mikel] bezala, baina hantxe. Jende asko joan zen hara, baina, jakina, Poliziak ez zigun utzi fusilatu zuten tokiraino heltzen. Eta jendea oihuka inguruko mendian: "Txiki! Txiki!"

HURREKOAK

"Hurrekoekin besterik ez dugu hitz egin gure egoeraz. Salvadorren heriotzaz, gure minaz... Hau eta hura galdetzen digute, gurekin hitz egitera etorriko direla, eta ongi da. Ez dakit bestelako laguntzarik -kanpikorik, esan nahi dut, psikologikoa-, beharko genukeen. Batek jakin".

Azken hitza

MARTIRI EZ

"Salvador militantea izan zen, eta biktima, baina ez martiri. Berak esan zigun behin, kaperako gau hartan, oker ez banago: 'Nik ez dut martiri izan nahi!'. Martiritzat hartua izaterik ez zuela nahi, alegia. Baina ez dakit zer pentsatuko lukeen ahizpok egiten duguna ikusiko balu, edo Madrileko gobernuak, Generalitatek, Bartzelonako Udalak... eginarazten digutena ikusiko balu. Hala ere, Salvador martiri ez, behintzat".

Eta emititu egin zuen. Eta jendeak ikusi! Harrituta denok! Eta handik abiatu, eta liburua egin zuen. Eta, hurrena, Jaume Arourasek filma egin zuen 2006an. Merezki du ikustea.

Esan nahi duzu, Escribanoren elkarrizketaz gero, gauzak bestela izan zirela?

Halakoren bat. Hamabost urte ere joanak ziren Salvador asasinatu zutenetik, eta orduantxe hasi ziren gauzak aldatzen; hein batean, bederen. Zorionez, lau ahizpok oso bat eginda gaude. Hala ere, nor bere modura eraman du Salvadorren

memoriaren lekukoa. Eta, beharrik, lau ahizpa garen, zeren filmaz gero hamaika tokitara joateko hots egin digute. Filma erakusten zuten eta, ondoren, solasa izaten zen, eta hantxe parte hartzen genuen zuzendariak eta etxeko batek. Batean, institutu batean ginen; bestean, bestelako toki batean. Eta Salvadorren heriotzaren 50. urteurrenaren kariatara, are eta toki gehiagotara joan behar izan genuen gure z hitz egitera.

Eta zer esaten zenuten Salvadorrez, zer galdetzen zizueten?

...18 urte nituen, gogoan iltzatuta daukadan kontatzen dut beti. Banketxeetan lapurreta egiten zutela, dirua langileei emateko, haiei laguntzeko. Oroitzen naitenez, ez zela etxean bizi, hilabeteak zeramatzala etxetik kanpora, behin baino gehiagotan ibili zela Tolosan [Okzitania], non gune anarkista indartsua baitzuten. Kontatzen dut klandestinitatean ibilita ere, etxera etorri zela ama hil zenean, baina mozarrotuta, trajea eta betaurrekoak jantzita: "Baina, Salva, orain betaurrekoak daramatzak?". Eta berak: "Ukitu, ukitu! Leiarrik badute?". Eta, egia! Leiarrik ez zuten! Eta etxeko ttikiena, Merçona, ikusteko egiten zituenak!

Zer esan nahi duzu?

Inkognito zebilen batera eta bestera, eta, Bartzelonan bertan, apartamentu batetik bestera. Hala ere, Merçona ikusteko ahaleginak egiten zituen. Igoal joaten zitzaion eskolara, jasotzera, eta eramaten zuen txokolatea hartzera, eta ematen zion diru pixka bat. Eta Merçona pozik baino pozikago! Eta, gero, ezkutatatu egiten zen berriz. Salvador, alegia. Hainbeste kontu.

Eta zer diozu haren borrokaz?

Salvadorrek ez zuen dudarik, bazekien zertan ari zen, frankismoaren kontra. Ongi gogoetatuta hartu zuen erabakia. Soldadutzatik etorri, eta hiru hilabete egin zituen gure ahizpa zaharrenaren etxean, Inmarenean, ezkondata bizi baitzen ordurako. Gauez, loaren erdian, amets egiten zuen, garrasi egiten zuen. Garai hartan hartu zuen erabakia, bere belauneko askok bezala. Egiten zuenaz guztiz kontziente zen Salvador.

50 urte ere joan dira...

Bai, baina orain dela gutxi izan balitz bezala bizi dut, presente daukat Salvador, eta egin ziotena. Ez zen izan inori ama edo aita hiltzen zaionean bezala. Hura

sei hilabeteko jipoia izan zen, sekulako egurra jaso genuen. Eta garrotea erremate! Ezin kendu dut burutik. Ezin dut. Bizi-bizirik daukat dena. Ezin izan dut inoiz burutik kendu. Eta uste dut inoiz ez dudala min hau kenduko. Saiatzen zara hau eta hura egiten, aurrera jotzen, baina hortxe da beti zauria, Salvadorren heriotzarena.

Aurten, Espainiako Gobernuak zuen nebari egindako epaiketa eta emandako zigorra baliogabetu ditu...

Bai, 50 urte eta gero. Eta Madrileran joan ginen eta agiri bat eman ziguten. "Diploma" bat eman zigutela esan nuen etxean, eta, hasieran, barre egin zidaten ahizpek, baina orain halaxe esaten diogu denok agiri hari: diploma. Jazarpen eta biolentzia politikoaren biktimatzat aitortu dute Salvador, baina bestelako erreklamaziorik egiteko eskubiderik ukatu digute. Alegia, ilegal eta ilegítimo deklaratzan dute Salvador epaitu zuen auzitegi militar hura, eta ilegítimo eta baliogabe, zigorra. Guk epaiketa bera baliogabetzea eskatzen dugu, horretan ari da abokatua [Francesc Caminal, Oriol Araurekin batera lan egina] lanean, baina ez dugu aitortza hori jasotzeko esperantzarik. ●

Malatzekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Pokerra, xakea eta Go jokoa



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Yanis Varoufakis-ek DiEM25 mugimenduaren Youtubeko kanalean elkarrizketatu du Columbiako Unibertsitateko Jeffrey Sachs irakaslea. Horrek azaldu du nazioarteko politikan Amerikako Estatu Batuek pokerrean jokatzen dutela, Errusiak xakean eta txinatarrek Go jokoa. Azken hori Txinan asmatu zen duela 2.500 urte baino gehiago. Azkar eta baldarki ulertzeko: maila jasagoko xake bat litzateke. Hain zuzen ere, AEBek jolasten dutenaren kontrakoa da.

Pokerrak oso epe laburrak ditu. Ez duzu estrategia konplexu luzeirik. Esku bakoitzak minutu bat hartzen du. Hori da Sachsen esanetan AEBetako pentsamoldea Nazioarteko Harremanetan, esku bat bota, irabazi/galdu, eta azkar ekiten dio hurrengoari, zerotik hasita. Baina nola jokatzen da? Funtsean, iruzurrean eta harrokeriatan oinarritzen da, ez dago kalkulu korapilatsuan edo lerro estrategiko luzeetan oinarrituta, Go jokoa edo xakean bezala. Horren antza du AEBetako kaosaren “estrategiak” azken hamarkadetan: herrialde hau bonbardatu, beste hau inbaditu, hurrengoak suntsitu, honetan estatu kolpea antolatu, beste horretan gerra bat piztu eta elikatu, hemen santzioak eta han enbargoak jarri, eta, nola ez, guztientzako merkatu librearen aldeztu ostean, orain aduana-zergak inposatu.

Washingtonen, erabakien eta egin-tzen arteko epe luzeko irakurketa estrategia falta nabaria gailentzen da. Halere, munduko lehenengo potentzia zaren eta zure propaganda makine-

Arazoa da pokerrean arrisku handiak hartzen dituenari oso lagungarri zaiola bere etsaien psikologia ezagutzea, eta Washingtonen, antza, urteak daramatzate ulertu gabe txinatarren psikologia

rian konfiantza osoa duzunean, pentsatzen duzu zure poker jokoa xakea edo Go-a baino hobea dela edo, gutxienez, uste duzu hori saltzeko gai zarela. Izan ere, AEBek praktika handia dute horretan, Edward L. Bernays-ek, propaganda eta pertsuasioaren (manipulazioaren) maisuak, argi utzi zuen bezala *Propaganda* (1928) liburuko lehen lerroetan:

“Masen ohitura eta iritzi antolatuen manipulazio kontziente eta adimentsua elementu garrantzitsua da gizarte demokratikoan. Gizartearen mekanismo ezezagun hori manipulatzeko dutenak gobernu ikusezin bat osatzen dute, gure herrialdeko benetako botere agintaria dena. Gobernatuak gara, gure izpirituak moldatuak, gure gustuak eratuak, gure ideiak iradokiak, hein handi batean se-

kula entzun ez ditugun pertsonengandik. Gure gizarte demokratikoa antolatzeke moduaren emaitza logikoa da”.

Arazoa da pokerrean arrisku handiak hartzen dituenari oso lagungarri zaiola bere etsaien psikologia ezagutzea, eta Washingtonen, antza, urteak daramatzate ulertu gabe txinatarren psikologia eta Go jokoa. Trumpen mehatxuak eta aduana-zerga iragarpenek ez dute Pekin izutu. Akaso, bere “aliatu” edo “menpeko” bezala definitzen dituen herrialdeak koldartuko ditu eta gutxi batzuk Washingtonen esanetara jarri; baina herrialde gehienek ez diote bizkarra emango munduko lehenengo ekonomia produktiboari, Txinari, alegia.

Txinako kanpo esportazioen %12 AEBetara doa (BPGren %2,3), ordezkagarria dena Latinoamerikan, Afrikan eta Eurasian irekitzen ari zaizkion merkatuekin. Arazo handiagoak AEBek izan ditzakete: nola ordezkatzeko dituen Txinatik AEBetara iristen diren esportazioen %90 (teknologia, energia berderako produktuak, bateriak...)? Horietako asko ezinbestekoak dira iparramerikar produktuak fabrikatu ahal izateko. Aldiz, Txinak AEBetatik inportatzen dituen produktuen %70 nekezarritza produktuak eta energia dira, erraz ordezkatzeko modukoak beste herrialdeetatik. Gauzak horrela, galdera zera da: Washingtonek jokoa aldatu eta harrokeriatan ibiltzeari utziko dio edo pokerrean jarraituko du munduan, eta bere etxean anabasa zabaltzen? ●

Nola iritsi gara honaino?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRONE

Bilboko Kafe Antzokian, hemen argitaratutako nire kolaborazioen bilduma den *Zapalduon pedagogia* liburuaren aurkezpenean, entzuleen arteko emakume batek bota zidan galdera. Ohikoak ditudan gaiak aletuz joana nintzen hitzaldian, eta Euskal Herriaren egungo egoeraren kezka jada mahai gaineratua zenez, horren hariko gogoeta gisa etorri zen galdera.

Interesgarria, pentsatu nuen. Gure ibilbideak izan duen emaitza txarraren aitortza egiten duelako, eta gudan (ere) jartzen duelako emaitza txar horren ardura, "gaizto"-ek egiten diguten horretatik at, gertatzen zaigun horren aurrean geuk eduki beharreko jokabideari eta estrategiari begira jartzen gaituelako. Introspektzio komunitario baten beharra iradokitzen du, zintzoa eta autokonplazentziarik gabea beharko lukeena.

Askok mobilizatu den herria gara, ekimen gaitasun handikoa, baina, hala ere, apenas garaipenik gabea, eta etengabe porrotak etsipena baitakar, helburua lortzea ezinezkoa dela pentsatzerainokoa, herria pixka bat amore emanda bezala dago orain, erresistentzia egiteari utzita, nolabait, asimilazioaren bidea erraztuta.

Ardura klase politikoarena da, herri batek ez diolako inoiz uzten den horri izateari bere borondatez, baina ustez politikaz dakitenengan delegatzen du, indarra nondik eta nola bideratu behar duen ongi dakitelakoan. Kontua da eskaintzen dioten bidea antzua dela, jada frogatua dagoen bezala, eta hala izanik ere hor segitzen duela, saltzen dioten ilusioaren kea erosten, "orain bai, une ezin aproposagoa" delakoan.

Askatasun nazionalaren aldeko borroka populu baten biziraupenerako borroka da, giza duintasunaren eta identitate-eskubideen aldekoa, eta beraz, erabat oinarrizkoa eta funtsezkoa. Baina askatasun nazionala erdiesteko Espainiako eta Frantziako instituzioen bidea proposatzen dutenak zuzenean ari zaizkio askatasun nazionalari uko egiten, erakunde horietan ez dagoelako horretara iristeko inolako biderik.

Estatu menderatzaile modernoek existitzen ez den baina egingarria dirudien esperantzarako bidea seinalatzen dute, gu desbideratzeko helburuz, betiere. Oportunismoa eskaintzen digute, edo onura probisional eta azalekoak lortzearen aukera, baina gure kokaleku politiko eta ideologiko funtsezkoa alde batera

uztearen truke, hori baita azkenean beraien helburua, logikoa denez.

Baina inperialismoa "erreformatzea" posible ez ezik beharrezkoa ere badela etxetik beretik zaigu esaten, bere eskakizun eta baldintzei men eginda errespetua eta errukia lortuko ditugula sinestarazita. Mobilizazioak antolatzen dira horretarako, oso efektista dirudien baina azkenean efektibotasun politiko ezdeusa duen agitazioa besterik ez eraginda, menderatzailen aldekoa delako gero Euskal Herriak egiten duen politika. Gurea erreazio-politika da, probokazio-kanpainen bitartez oso erraz erabakitzen baitute gure norabide politikoa.

Politika sinesgarria ez daukan herria beti da propaganda inperialistak sustatzen dituen ilusio eta soluzio errazen biktima, ilusioaren ondotik desilusioa datorrelako, eta frustrazioa, eta desesperazio politikoa. Gure indarra ezarri behar dugu askapen eta erresistentzia politika koherente baten zerbitzura, zeinak printzipio bezala izango dituen estatu menderatzailen aparatua politiko eta ideologikoari erresistentzia egitea eta estatu-erakunde propioak eraiki edota berrezartzea. Ez da existitzen printzipio horiei iskin egitea ahalbidetzen duen inolako biderik. ●



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Bizitza birziklatzen

Bi toki diferentetan egokitu zait garbiketa egitea aldi berean. Ez garbiketa arrunt bat, baizik eta egunerokoan inguratzen gaituzten paisaiak beste era batean arakatzera behartzen gaituen hori, kanpoko objektu fisikoekin batera norberaren baitako egiturak ere mugiarazten diguna.

Bi toki funtsezkotan egokitu zait: lantokian eta etxean.

Lantokikoa badoa arin, ez baita soilik nirea, baizik eta kolektiboa, eta partekatzek beti dakar onura. Etxekoa ariketa bakartiagoa da, eta horregatik zailagoa.

Lydia Flem belgikarraren *Nola hustu nuen gurasoen etxea* (Alberdania, 2005) liburua irakurri eta gero hustu behar izan nuen neureen etxea, eta baieztatu nuen liburuak zioena. Besteak beste, gurasoen etxea hustuta haurtzaroko bizipen sakonei eman behar diegula aurpegi.

Helduaroko eszenatokiak (etxea, lantokia...) gauzez, norberaren gauzez, husteak ere antzeko esfortzua eskatzen du.

Izan, ez da nahitaezkoa: erabakitzen ahal nuen lehen begiratu batean ikusitakoak nahaspilaturik botatzea, ezer bereiztu gabe. Bizkorrago amaituko nuen, eta saihestuko nuen nire bizitzaren oraingo errealtatera ekarri nauten erabaki, inguruabar, hari eta gorabehera so egin beharra.

Baina erabaki orohartzaile azkarrak inoiz ez dira izan hautu niretako, eta banekien antolatutako, eraldatu edo baztertu beharreko gauza materialak xehe-mehe aztertu behar nituela: birziklatze-legeari men egiteaz gain objektu material uki-garriek gordeta daramaten karga immaterial ukiezin bezain bihotz-ukigarriari heltzeko.

Eta hala ari naiz orain, liburu, CD, brikolaje-tresna, ontzi, jantzi eta gailuak sailkatzen, urtetako hautsak harrotzen, eskuak zikintzen eta barrenak nahasten, oroitzapenak, emozioak eta sentipenak zein bere tokian eta tenorean kokatzen saiatzen, eta unean-unean erabakitzen zerk merezi duen gelditzea eta zerk alde egitea, zer izanen den berrerabilgarri, zer joanen den plastikora edo paperera eta zer bilakatuko den errefusa ezinbestean.

Sistema ekonomikoak tai gabe eramaten gaitu aldi berean gauzak metatzera eta botatzera. Aldiberekoak dira birziklatzeko eta gauza berriak eskuratzeko gonbitak. Eta horrela zaila da denbora hartzea benetan pentsatzeko zertan ari garen.

Oraingoan, erabaki dut egoera deseroso bat aprobetxatzea objektuen alderdi gorpuzgabeen begiratzeko: iraungitako ametsei eta etorkizuneko aukerei. Ez da atsegina, baina bizitzaren beste ikuspegi bat ematen du. ●

Item



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Kalean nindoan geneetan daramagun dispersio joerara guztiz emana, bide fisiko eta curricularretatik desbideratzen zaituen abstrakzio alferrikakoren batean. Aurretik hogeita hamarrak bete gabeko neska bat. Zerbait erori zaio poltsikotik. Neska ez zen ohar-tu. Item bat zen. Oraindik ez dakit oso ondo zer diren, baina berehala haatematen ditut jada, abstrakzioa dardaraka hasten zait.

Itema izan zitekeen galdetzen duena ea bere izenez deitzen diozunean begiratzeko dizun. Edo esfinterren kontrolari buruzko bat. Edo ea orientatzen den. Ea baldarra den. Ea larritzeko moduan hitz egiten duen, alegia, ondoegi ("ondoe-

gi" izan daiteke "ahaldundu behar dugu jotzen diotenerako"). Izan zitekeen bat gauza errepikakorrek egiteari buruz. Edo obsesionatzeari buruz (andereñoak atera duen gai randoma ez den zerbaitekin). Ea lagun minik baduen (jotzen duten klase batean). Badu bere adinekoek edukitzen ez duten kezka bat? Eta ez da bakardade behartuari buruzkoa. Azkenean item batek berari buruz galdetu du, eta bat-batean ez da autista, super listoa baizik, eta hitz egin dezake atomoari buruz klasean, hori jatortasun falta bat izan gabe.

Larrituta itzuli nion itema andereñoari. Ez dadila haur bat ikusezin geratu laugarren itema falta duelako. Obedientziarena. ●

Datu zenbait argitaratu, emaitza osoa ezkutatu



MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Hezkuntza Sailak ebaluazio diagnostikoen berri eman zuen otsailan: 2023ko etapa erdikoa eta 2024ko etapa amaierakoak izan zituen hizpide. Emaitza negargarriak egiturazko arazoa dugula erakutsiko luketenez, sailak erabaki zuen tramitea bete bai (ED 23 eta 24 txosten exekutiboak argitaratu), baina emaitzak ezkutatzea.

Horrela, beste behin ere, Hezkuntza Sailak jarraituko du egiturazko arazoari egiturazko erantzunik eman barik.

Har dezagun 2013ko etapa erdiko ebaluazio diagnostikoa, ordenagailuz egin zen lehena. Urte hartan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako txosten exekutiboak 116 orrialde zituen, zeinetan emaitzak xehe-xehe aletzen ziren. Urte bereko DBH 2ko txosten exekutiboak 124 orrialde zeuzkan.

Har dezagun etapa amaierako ebaluazio diagnostikoaren lehenengo txosten exekutiboa, 2022koa. Horretan, 2018ko eta 2022ko emaitzak aurkeztu zituzten, bai LH 4koak, bai DBH 2koak: 173 orrialde behar izan zituzten.

Gatozen orain aurtengo txosten exekutibora: 2023ko ebaluazio diagnostikoa aurkeztu dute (LH 4 eta DBH 2),

Hezkuntza Sailak diosku DBH 4ko ikasleen %22k euskarazko hizkuntza-kompetentzia aurreratua dutela, baina ahozko kompetentzia neurtu barik

baita 2024ko etapa amaierakoa ere (LH 6 eta DBH 4). Ebaluazio diagnostiko desberdin biren lau mailatako datuak aurkezteko, 26 orrialdeko txosten exekutiboa.

240 orrialde 2013an; 173, 2022an; 26, 2024an. Kuantitatiboa horraino. Goazen orain kualitatiboarekin.

Hezkuntza Sailak kontzeptu engainagarriak erabiltzen ditu. Esaterako: DBH 4ko ikasleen %22k euskarazko hizkuntza-kompetentzia aurreratua dutela diosku, baina ahozko kompeten-

tzia neurtu barik. Hau da, ez daki ikasle horiek ondo konpontzen ote diren euskaraz berbetan. Argi gera bedi: Hezkuntza Sailak erabaki egin du DBHko ikasleei ahozko kompetentzia ez neuritzea; 2018an 1.000 ikasleri neurtu zien, ez zituen emaitzak txosten exekutiboan argitaratu (ez beste inon, nik dakidala) eta harrezkero ez du berriro neurtu derrigorrezko hezkuntza amaitu duten ikasleen ahozkotatua. Beraz, ezin da esan 16 urteko ikasleen %22k euskarazko maila aurreratua dutenik, ezta %54k erdiko maila dutenik ere.

Bestetik, ebaluazio diagnostikoetan A eta B ereduak batu eta, ikastetxearen kokapenaren arabera, D eredu bitan zatitzen dute: euskaldunak herritarren %50etik gorako eta beheko udalerria den. Baina argitaratutako emaitzetan ez da islatzen: ez dakigu B eredu-ko zenbat ikasle dagoen maila egokian edo aurreratuan (B1 onartzen zaie DBH amaitzean, A eredukoei ez bezala) eta ez dakigu D eredu bakoitzeko ikasleen emaitzak zein diren. Nahiz eta azken hori funtsezkoa den, konturatzeko euskara-gaitasunaren fokua ikastetxetik kanpora ere ipini behar dela. ●

Soziolinguistika aldizkaria

BAT 134. ZENBAKIA
**TXILLARDEGI-
HAUSNARTU**
SARIAK (2023)

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

- **1. SARIA. ARRATE ILLARO ETXEBARRIA**
> Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentua atxikitzea eta pertsonen motibazioari eustea (faktoreak, indarguneak eta erronkak).
- **2. SARIA. EIDER GURRUTXAGA LARRAÑAGA** > Partaidetzazko lankidetzak hizkuntza-politiken eremuan: 2014-2023 artean Gipuzkoako kasua aztergai.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Lau hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Lau hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556
bat.aldikaria@soziolinguistika.eus

- **3. SARIA. OIHANE ALAVA BERNAOLA** > Durangaldeko 16-18 urte bitarteko gazteen euskararen erabilera arau sozialen zokoan.
- **AMAIA RUIZ CASTELLANOS** > Herria harro. Emozioan garrantzia euskal kulturaren transmisioan: 23. Korrikaren kasua.
- **LARRAITZ ANTZIZAR LASA** > Bernat Etxepare lizeoa, etorkizuneko euskal animatzaileen harrobia Ipar Euskal Herrian.

ARGIA.eus/podcast

BERANDUEGI



Bi ostiralean behin **argia.eus**-en

DENA EZ DAKIGU,
BAINA
EZ GABILTZA
URRUTI



ETORRI BERRIAK

Euskalduntzerako bidean harriak eta zubiak

Euskara ikastea zaila denaren mitoa aski zabaldua dago, batik bat, euskalduntzerako ahaleginik batere egin nahi ez dutenen artean. Arrazoi dute puntu batean. Zailtasun nagusiak, ordea, ez dira heretsiki linguistikoak, gizarte antolamendukoak baizik. Batetik, Onintza Iruretak astekari honetako 2894. zenbakian az-

tertu bezala, euskara ikasteko eskubi-dea ez da unibertsala, ikas prozesuaren doakotasuna hainbat baldintzari lotua baitago. Bestetik, zailtasun ekonomikoek gain, badira maila soziolinguistikoan eta didaktikoan aztertu beharreko zenbait traba eta oztopo, euskalduntze prozesuan eragiten dutenak.



JONE GARTZIA GERRA

 LAIDA ZAPRE

Arkaitz Zarraga euskara irakasle eta soziolinguistak asko gogoe-tatu du horien inguruan. Haren esanetan, bi dira euskara ikas-terko bidean jendeak topatzen dituen traba nagusiak: batetik, ordu-tegietara moldatzeko zailtasunak, lan baldintzekin zuzenean lotutako aferak; eta, bestetik, euskaltegietan erabiltzen den metodologia. Zarragaren hitzetan “eurozentrikoa” da euskara irakasteko dugun modua, eta erabilerara eta ahoz-kotasunera zuzenduta egon beharrean, azterketak gainditzera dago bideratuta.

EAEn azterketek duten zentraltasu-na gaitzetsi du, bere ustetan azterketen tipologiak euskara irakasteko modua baldintzatzen duelako. “Euskaltegieta-ra funtzionario izan nahi duen jendea dator, lan publiko bat egin nahi duena: ikasketak ditu eta ezaugarri batzuk”,

“Bi dira euskara ikasteko traba nagusiak: ordutegietara moldatzeko zailtasunak, lan baldintzekin zuzenean lotutako aferak; eta euskaltegietan erabiltzen den metodologia”

Arkaitz Zarraga

Euskara irakaslea

dio. Hala ere, egungo ikasle tipologia handi bat kanpotik etorritakoek osatzen dute, eta haiek ere ezaugarri bereziak dituzte: “Askok ez dakite ez gaztelaniaz ez frantsesez, ez daukate ikasketa maila handirik, asko alfabetatu gabeak dira euren hizkuntzan edo beste alfabeto bat darabilte”.

Materialak, eskolen modulu tipoak eta irakasleen prestakuntza egoera horietara egokitu beharko liratekeela uste du. Lan baldintza prekarioenak eta aldakorrenak dituzten horien ordutegietara moldatzeko beharra azpimarratu du.

“B1 eta B2 mailetatik aurrera nor bere testuinguruan euskalduntzea sustatu beharko litzateke, bai lan munduan, kirolean, administrazioan... ez eragiteko soilik ezagutzan, baita erabileran ere”. Horretarako, ezinbestekotzat du didaktika komunikatiboan sa-

kontzea: “Bakoitzak duen testuingurura egokitu beharko genuke programazioa: tabernari batek zenbakiak beharko ditu, edarien izenak, bere burua eta lekua aurkeztea... agian ez du titulu bat beharko, solasaldi batzuk izateko gaitasuna baizik”. Era berean, eskoletatik metalinguistika ateratzearen alde egin du, zenbait ikasle galduta sentitzen omen baitira gramatika kontuekin.

Materialak berrikusterako orduan, hainbat konturi erreparatu beharko litzaiekeela defendatu du Zarragak: generoari, aniztasun funtzionalari eta beste kultura eta kosmobisio batzuei ere. Izan ere, argitu du askotan Euskal Herrira iritsi berriek ez dituztela “guk oso ohikotzat ditugun ariketa batzuk ulertzen”, eta begirada zabaldu beharra azpimarratu du.

Laburrean, egoera onbideratzen hasteko eman beharreko pausoak zerrrendatu ditu Zarragak. Batetik, sektore inplikatuekin hitz egin beharko litzaitekeela uste du, horietara egokitutako

moduluak prestatzeko ahozotasunera begira. Areago, hainbat sektoretako langileak euskara ikas dezaten liberatzeko instituzioek dirua jarri beharko luketela defendatzen du. Doakotasuna maila gainditzera lotua egotea deitoratu du, eta aprobetxamendua neurtzeko beste neurri batzuen beharra azpimarratu. Bestetik, politika publikoetan euskarak zeharkako lerroa izan beharko lukeela dio, “ez soilik Kultura Sailaren ardura”.

ETORKINAK ETA EUSKARA

Baskale eusko-alemaniar elkarreak sakonki erreparatu die atzerritarrek euskara ikasteko dituzten oztopo espezifikoei. Iaz aurkeztutako ikerketan, etorkinek euskararen aurrean dituzten jarrerak aztertu zituzten. Amaia Herro elkarteko kideak azaldu du zein izan zuten azterketa abiatzeko hipotesia: “Azkenaldian asko entzuten da etorkinek ez dutela euskara ikasi nahi, ez dutela interesik eta euskaldunentzako oztopo direla. Bestalde, euskara dis-

kriminatzaila eta pribilegioa ere izan daitekeela entzun izan dugu”.

“Aurreiritzi horiek apurtzeko”, 65 pertsona elkarriketatu zituzten, adin, genero, belaunaldi eta euskara maila desberdinetakoak, hiru multzotan sailkatuta: etorkinak, haien seme-alabak eta euskara irakasleak. Lehenengo taldeko elkarriketatu guztiek aipatu zuten euskara ikasi nahi zutela, baina ezinezkoa zaiela “egungo baliabide eta antolamenduarekin”.

Galdekatuek aipatutako oztopoen artean, honakoak nabarmendu ditu Herroek: oinarritzko beharrianak asesta ez izatea, oinarritzko hezkuntzarik jaso ez izana, alfabetatze maila baxua izatea, latindar alfabetoa ikasi behar izatea edo lehendabizi gaztelania ikasi behar izatea. Egoera soziolinguistikoari lotutako zenbait traba ere aipatu ditu: inguruko jendeak euskara ez erabiltzea eta garrantzirik ez ematea, ikasteko motibazio falta eta euskara pribilegioa denaren ideia.



ANDONI CANELLADA / FOKU



Fatima Zahara Laktarni marokoarra Otxandioko (Bizkaia) Aisa taldeko ikaslea da. Darija eta arabiera ditu ama hizkuntza. Beste alfabeto bat ikasi behar izan zuen hemen eta ez zuen gaztelania menderatzen Otxandiora iritsi zenean. Marokon eskolara joateko aukera handirik izan ez zuenez, hasieran kostatu egin zitzaion euskara ikastea.

Azken horiei lotuta, Herrerok salatu du Euskal Herrian jaiotakoei eskatzen ez dieguna exijitzen diegula kanpotik etorritakoei: “Hemengo jende askok ez du euskara ikasi eta ez du ikasi nahi. Horiek ez al dira arriskutsuak euskararentzako?”. Etorkinek giro euskaldunetan sartzeko dituzten zailtasunak ere jarri ditu mahai gainean: “Zer aukera dauka Bilbon bizi den atzerritar batek euskaraz bizitzeko? Guk sare bat dugu sortuta, baina zaila da etorkina izanda giro euskaldun batean sartzea, ez gara asko irekitzen. Gainera, kultura ezberdinetako pertsonentzako zaila izan daiteke. Adibidez, gure aisia oso lotuta dago tabernetan edatearekin eta musulman askok ez dute alkoholik edaten edo ez dira hainbeste joaten tabernetara”.

Jendartean zabaldutako jarrera eta aurreiritzi arrazistak ere badaude: jakintzat eman ohi dugu pertsona arrazializatuak ez dela euskalduna izango, eta zuzenean zuzentzen gatzazkio gaztelaniaz. “Ez diegu aukerarik ematen giro euskaldun batean egoteko”, dio Herrerok. Halaber, azaldu du euskararekin

“Ikas materialak eurozentrikoak izateaz gain, nahiko klasistak ere badira”

Amaia Herrero
Baskale elkarteko kidea

harreman estuena dutenek militantzian eta lagun sareen bidez gerturatzen direla, eta jatorrizko herrietan hizkuntza minorizatu bat edo gehiago dutenen artean euskararekiko elkartasuna eta jakin-mina piztea errazagoa dela.

Elkarrizketatuek eskatutako “pazientzia” eta “enpatia” jarri du azpimarra Herrerok: “Laguntzaileak izan behar gara eta bideak ireki behar dizkiegu euskarara hurbiltzeko”. Etorri berriei harrera egin eta Euskal Herriko egoera ondo azaltzeko dugun erantzukizuna nabarmendu du, askok ez baitute horren berri hona iristen direnean.

Bestalde, EAEn euskara irakasteko lehen mailetan gaztelania erabiltzen dela kritikatu du Herrerok. Etorkin askok, ordea, ez dute gaztelania menderatzen edo beste aldaera bat darabilte. Gainera, ikas materialak “eurozentrikoak” izateaz gain “nahiko klasistak” ere badirela deritzo: “Erabiltzen dituzten ereduak ez dituzte pertsona guztiak ordezkatzen: denok ez gara oporretan joaten, ez dugu kotxerik... Uste dut hori ekiditen ahalegintzen direla, baina modu batean edo bestean agertzen da”.

HARRERAREN GARRANTZIA

Pentsatzekoa denez, AEKn ere sakon gogoetatu dute gaiaren inguruan. Didaktika Saileko arduradun Joseba Irababalek eta Irakaskuntza Zerbitzuko arduradun Maialen Otegik Euskal Herria iritsi berriek euskara ikasteko dituzten zailtasunak azaldu dituzte.

Zenbait gako azpimarratu dituzte: Euskal Herrian bizi diren askok ez dutela euskara ikasteko inolako interesik erakusten eta leku askotan ez dela beharrezkotzat hartzen; etorkinei ez

zaiela harrerarik egiten eta ez zaiela euskara ikasteko motibazio afektiborik eta instrumentalik adierazten; informazio-gabezia handia izaten dutela euskararekiko eta euskara ikasteko urratsekiko; kontu administratibo ugari egin behar dituztela Euskal Herrira iristean; paperik ez dutenek ez dutela doan ikasteko aukerarik; egoera zaurgarrian bizi direla asko eta bestelako lehentasunak dituztela; lanarekin eta familiar betebeharrekin uztartzeko zailtasunak dituztela; bai eta matrikula ordaintzeko ere arazoak dituztela.

Errealitate horri erantzuna emateko neurri politikoak eta baliabideak behar dituztela adierazi dute, sektorea berrantolatu, ikusgarritasuna eman eta lan-baldintzak duintzeko. Horretarako, "Euskal Herri osoa hartuko duen egitura egonkor eta iraunkor bakar baten premia" azpimarratu dute, aldakorrek diren hiru eremu administratiboetako dirulaguntza sistema gainditzeko.

Euskaltegiako metodologiari dagokionez, AEKn ikuspegi komunikatiboan oinarritzen direla oroitarazi du Joseba Irazabalek: "Batuetan ikasleak baldintzatuta datoz, azterketa gainditu behar dutelako. Gu beste muturrera eramaten

"Nire ama euskaltegira
etorriko balitz ez luke
lo egiteko astirik ere izango"

Sahir Villacis

Euskara ikaslea

ahalegintzen gara: komunikazio gaitasuna lortzen badute azterketa gainditzeko dutela azaltzen diegu".

Otegi aitortu du azken urteetan EAEn gora egin duela euskaltegiak titulua eskuratzera joaten den ikasle kopuruak, bereziki B1 mailatik gora. Hala ere, ikasleek euskara ikasteko askotariko motibazioak dituztela nabarmendu du: "Etorri berrien kasuan izan daiteke gizarteratzeko, izan daiteke seme-alabekin edo ilobekin hitz egiteko, izan daiteke hemen jaio den pertsona bat ikasteko aukerarik izan ez duena...". Alta, azpimarratu du motibazioa beharrrak sortzen duela eta harrera prozesurik gabe zaila dela beharra piztea, eta testuinguru soziolinguistikoaren arabe-

ra egoera asko aldatzen dela.

EUSKARARA LEHEN HURBILPENA

Ugariak dira Euskal Herri osoan etorri berriei euskarara lehen hurbilketa egiten dieten egitasmoak: hainbat herritan oinarritzko eskolak boluntarioek ematen dituzte elkarte eta gaztetxeetan, Berbalagun taldeak eta gau eskolak oso zabalduta daude, Helduentzako Hezikuntza zentroetan euskarazko klaseak ematen dituzte dohainik... "Herri mugimendua eta eskola txikiak dira horrelako alternatibak eraikitzen ari direnak, instituzioek paso egiten dute", salatu du Baskaleko kide Amaia Herrerok.

Eredu herrikoiek, ordea, zailtasunak dituzte denboran iraun eta egonkortzeko: irakasleak boluntarioak dira eta askotan ez dute beharrezko prestakuntzarik, taldeetan maila guztiak nahasita egoten dira, ikasle eta irakasle taldeak nahiko aldakorrek dira, giro informala goak eta saioak musu-truk izateak taldea lasaitu eta jarraitutasuna galtzera eramanezake taldea, ikasle askok ordutegi eta bizitoki aldakorrek dituzte...

Egoera iraultzeko, bi bide jorratu beharko liratekeela uste du Herrerok: batetik, instituzioek eredu malguak

V. BERTSO SARIKETA AIXITA SARIA 2025

Maiatzak 17, larunbata, 17:30

KULTUR ETXEA - IRURTZUN

Gai Jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"



IOSU SANJURJO
ALTZURI
(LESACA 1993)



ARDA ARRIZUBIETA
BARREDO
(GASTEIZ 2001)



ENDIKA
LEGARRA NUIN
(IRUÑA 1996)



ANE ZUAZUBISKAR
IÑARRA
(ARRASATE 1997)



AITOR SERVIER
ETCHECHURI
(AZKAINA 1997)



JOSUNE
ARAMENDI PÉREZ
(MARKINA-
XEMEIN 1994)



BABESLEAK



HEDABIDE LAGUNTZAILEAK



sustatzea, azterketak gainditzeaz harago bideratutako taldeak bultzatzea eta benetako doakotasuna bermatzea; eta, bestetik, herri mugimendutik ahoz-kotasunarekin eta aisiarekin lotutako proiektuak martxan jartzea. Beste hainbat elkarte egin bezala, Baskalek berbalagun talde bat antolatu du, “euskarara lehen hurbilpen bat eman eta euskaltegira joateko grina pizteko”.

Antzeko helburuarekin hasi ziren duela hiru urte Hernanin (Gipuzkoa) euskarazko eskolak ematen AMHER Sos Arrazakeria elkartearekin, Udalarekin eta AEKrekin lankidetzan eta irakasle boluntarioekin. Euskaltegira joateko zailtasunak dituzten horien baldintzetara moldatzen dira, lehen hurbilpena egin eta egoera egonkortzean euskaltegira joatera animatzeko. Su Hernández AMHEReko langileak azaldu du euskaltegiek gero eta malgutasun handiagoa duten arren, askotan ez dela nahikoa. “Oso bizitza prekarioa dute eta edozein lan ateratzen bazaie eskolak uzten dituzte. Oso zaila da ikasturte osoa klase-erretortzea”.

Astean lau orduko eskolak ematen dituzte eta ez dute matrikulazio epe itxirik. Horrela, edozein momentutan

“Badira kultura desberdina dutenak, munduaren ikuskera desberdina dutenak, alfabetatu gabekoak, ama hizkuntza eta alfabeto desberdinak dituztenak...”

Joseba Irazabal

AEK-ko Didaktika Saileko arduraduna

has daiteke taldean euskara ikasten. Horrek, jakina, badu bere ifrentzua. Urte luzez Hernaniko Udaleko euskara teknikari izandako Malores Etxeberria boluntario dabil irakasle, eta azaldu du taldea txikia eta ezegonkorra dela, ikasleek oso baldintza aldakorak dituztelako. Hala eta guztiz ere, Hernándezek nabarmendu du etorkinei lehen harrera egiten dien elkartea izateak asko laguntzen duela konfiantza piztu eta euskara ikasteko lehen urratsa sustatzeko.

AISA TALDEAK

AEKn ere, euskarara hurbiltzeko eskolak eskaintzen dituzte. 2006an Aisa izeneko 60 orduko ikastaroak antolatzen hasi ziren EAEn eta tokian toki xede bereziko taldeak egiten dituzte. Taldeon berezitasuna da gutxieneko ikasle kopuru batek Espainiako Estatutik kanpokoak izan behar duela eta ordu-tegi bereziak eskaintzen dituztela, ikasleei ahalik eta egokituenak. Irazabalek azaldu du taldeotan metodologia berriak planteatzen ari direla, orain arte metodologia eta irakasleen prestakuntza pentsatzeko izandako “modu itxiak” apurtzeko.

Izan ere, badira urteak ikasleen aniztasunari erreparatu eta eskolak emateko moduak birplanteatzen ari dela. Irazabalen hitzetan, “orain konturatzen ari gara lehendik gertatzen zitzaiguna: badirela kultura desberdina dutenak, munduaren ikuskera desberdina dutenak, alfabetatu gabekoak, ama hizkuntza eta alfabeto desberdinak dituztenak...”. Alta, aniztasuna heterogeneoa

dela gogorarazi du Irazabalek: “Atzerri-tarrak ez dira talde bat, mila talde dira. Euskal Herrian daude, euskara ikasten ari dira eta ezaugarri batzuk dituzte. Horiek hartu behar ditugu kontuan baliabideak sortzerakoan eta formazioak eman eta hartzerakoan”.

Aniztasun hori kontuan hartu eta euskaltegien jardunean nola barneratu etengabe aztertzen ari direla azpimarratu du Irazabalek. Gainera, Maialen Otegi nabarmendu du ikas materialek “bizirik” egon behar dutela eta ardatz asko kontuan hartuta “etengabe eguneratu” behar direla. “Beti gaude ikasten, bai ikasleak bai gu, gradualki joan gara kontu horiek txertatzen”, laburbildu du Irazabalek.

FATIMA ZAHARA ETA FARAN RIAZEN IBILBIDEAK

Otxandioko (Bizkaia) Aisa taldeko ikaslea da Fatima Zahara Laktarni marokoa-rra, eta ikasle ohia Faran Riaz punjabiarra. Taldea sortu eta berehala eman zuten izena eskolan, euskara ikastea ezinbestekotzat jotzen dutelako herrian integratzeko. Biak datoz eremu diglosi-ko batetik, beste alfabeto bat ikasi behar izan zuten eta ez zuten gaztelania menderatzen Otxandiora iritsi zirenean.

Laktarnik, adibidez, darija eta arabiera ditu ama hizkuntza. Marokon eskolara joateko aukera handirik izan ez zuenez, hasieran kostatu egiten zitzaio- la euskara ikastea, baina nabarmendu du euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen dela. Euskal Herrian bizi delako erabaki zuen euskara ikastea, eta bere alabei etxerako lanekin lagundu ahal izateko.

Riaz erabat inguru euskaldunean bizi da: familia, lagunak, lantokia... Ezin daiteke esan hizkuntzak ikasteko zailtasunik duenik, erabat menderatzen baititu punjabera, urdua, ingelesa, greziera, gaztelania eta euskara, eta italiara eta frantsesa ere hitz egiteko gai da. 16 urterekin joan zen etxetik, eta geroztik Europako hainbat herrialdetan bizi izan da.

Denbora arazoak zituenek Riazek, aste gutxi eman zituen Aisa taldean. Aipatu du eskolan irakasten duten euskara eta kalean entzuten duena ez direla berdina. Hala ere, ahal duen guztietan mintzatzen da euskaraz, eta horren beharra defendatzen du nonahi. Baditu Indiako eta Pakistango lagunak esaten diotenak euskara ikasteak ez duela zentzurik, ez dakitelako noiz arte egongo diren hemen. “Nik esaten diet horrek



Faran Riaz punjabiarrak Otxandioko Aisa taldea sortu eta berehala eman zuen izena. Aste batzuetara utzi zion joateari denbora faltagatik. Hala ere, ondo moldatzen da euskaraz eta berak dio ahal duen guztietan erabiltzen duela hizkuntza.

berdin duela, ikasiko dudala beste hizkuntza bat beharrezkoa bada”, dio.

Eskolan, ordea, badituzte egoera desberdinean dauden beste kide batzuk. “Gure taldean emakume arabiar bat dago, oso nagusia da eta apenas ateratzen da etxetik, eta gainera ez daki gaztelaniaz. Hori arazo bat da, zailagoa da euskara ikastea ez badakizu gaztelaniaz”, argitu du Laktarnik.

NAHITA ERE, EZIN

Isabel Quiñones, Lina Ortiz, Sahir Villacis eta Mohamed El Karfou Altsasuko euskaltegia ari dira euskara ikasten. Kubatik, Kolonbiatik, Ekuadorretik eta Marokotik iritsi ziren Ziordiar, Etxarri Aranatzera, Altsasura eta Urdiainera, hurrenez hurren. Euskal jendartearen “hobeto integratzeko” erabaki zuten euskaltegia izena ematea, bai eta euskal kultura eta hizkuntza atsegin dituztelako ere. Ortizek etorkinek euskarari egiten dioten ekarpena azpimarratu du: “Dakigun apurrarekin gure alea jartzen dugu hizkuntza mantendu eta kulturari eusteko”.

Faran Riaz Otxandion
bizi den punjabiarrak da.
Berak dio eskolan irakasten
duten euskara eta kalean
entzuten duena
ez direla berdinak

Gazteak dira laurak, eta pozik eta gogotsu ari dira euskalduntzeko bidea egiten. Aipatu dituzten zailtasunen artean, ahoskera nabarmendu dute. Villacisek gaztelania ez dituen zenbait soinu bereizteko zailtasuna nabarmendu du: “Hemen bizi den jende askok ez du euskaraz hitz egiten, baina soinu horietara ohituta daude, gu ez, ordea”. Hala ere, orokorrean jendeak pazientzia duela

eta ahal dutenean hitz egiten saiatzen direla azaldu dute, nahiz eta euskaltegia irakasten dieten euskara eta kalean entzuten dutena berdin-berdinak ez izan.

El Karfouk euskara ikastea zenbait konturako baliagarria dela iriziteaz gain, bertoko kultura eta historia ezagutzea ezinbestekoa dela deritzo. Amazigeraz, arabieraz eta gaztelaniaz mintzatzen da, eta euskara ikastea ez zaio zaila iruditzen. Quiñonesek etorkinei zein bertakoei eskatu die “oinarrizkoena bada ere” ikasteko ahalegina egin dezaten. Kexu da Ortiz: “Hemen denbora asko daraman jendea dago, euskara zaila delako aitzakian babesten direnak, baina saiatu ere ez dira egiten”.

Nahita ere ezin dutenak daudela gogoratu du Villacisek: “Nire amak euskara ikasi nahi du, baina ez du denborarik. Hona iritsi zenean kontu administratibo ugari konpondu behar izan zituen eta orain lan eta lan ari da Ekuadorreko familiarri laguntzeko. Euskaltegia etorriko balitz ez luke lo egiteko astirik ere izango”. ●

PANTAILALDIA

Sortzea ez da nahikoa, ohiturak aldatzen ez badira

Euskaraldiaren atarian, beste behin, Pantailaldia egingo da. Maiatzaren 6tik 15era iraungo du, eta euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzea izango da helburua.

Baina non gaude, non dago euskara ikus-entzunezkoen mundu zabalean, nora goaz? Zein hutsune, zein erronka identifikatzen ditugu? Eta batez ere: gauzak hobetu nahi baditugu, nondik has gaitezke? Hainbat kezka bueltan solasean ipini ditugu Pantailak Euskaraz, Zer Non Ikusi eta Azpitoluak.eus-eko kide bana.


 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Mota guztietako pantailetan eta formatuetan, euskarazko edukia erabili, kontsumitu edota sortzeko erronka da Pantailak Euskaraz mugimenduak herritarrei planteatuko diena Pantailaldian. Haiek dira egitasmoaren bultzatzaileak, eta honela aletu ditu Alex Aginagaldek Pantailaldiak izango dituen erronkak: “Alde batetik, jakina, euskarazko ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen kontsumoa sustatu nahi dugu, herritarrak animatu nahi ditugu horretara; baina beste alde batetik dei egin nahi diegu erakundeei, agerian utzita euskarak ikus-entzunezkoetan duen presentzia txiki eta mugatua, eta eskatu nahi diegu har ditzatela hori hobetzeko neurriak, garatu dezatela estrategia sendoa. Iruditzen zaigu, euskarak etorkizunean aurrera egingo badu, ezinbestekoa dela horretan ere indarrak ipintzea”.

Duela bi urte eta erdi, 2022ko azaroko Euskaraldiaren atarian antolatutako estreinakoz Pantailaldia. Positiboki baloratu zen, bai komunikabideetan izandako oihartzunagatik, baita jendearen parte hartzeagatik ere. Azken hori argi ikusi zuten Zer Non Ikusi atari digitalean, hala kontatu digu Mikel Eizagirik: “Orduko hartan orain baino dezente jende gutxiagok ezagutzen gintuen, sortu berri-berriak ginelako, baina Pantailaldiaren egunetan bisitak biderkatu zitzaizkigun”. *Zernonikusi.eus* web orriak katalogo gisa funtzionatzen du. Izenak esaten duen moduan, zer eduki zein streaming plataforman dagoen ikusgai adierazten du, izan jatorrizko bertsioa euskaraz delako edo izan euskarara bikoiztuta edo euskarazko azpidatziak dituelako. Era berean, azpi-atal batean, Euskal Herriko zinema aretoetan euskaraz ikus daitezkeen pelikulak

zeintzuk diren ere adierazten dituzte, herria eta egun eta orduak jakinarazita. “Ez nekien euskaraz ikus zitekeela” eta gisako aitzakiei ez die tarterik utzi nahi Zer Non Ikusik.

Azpitoluak.eus web orria, bestalde, euskarazko azpidatzien artxibategi handia da, oro har nazioarteko filmen azpidatzi testuak kode irekian eskuratu daitezkeena. Gehien-gehienak pelikulak badira ere, telesailak batuta ia 2.000 eduki daude eskuragarri. Jariora, ordea, ez da duela bost-bat urte artekoa bezalakoxea. Dena dela, atari digital horren atzean dagoen Luistxo Fernandezek uste du film sorta dotorea aurki daitekeela: “Ez nizuke esango zinemaren historiako ehuneko handi bat hor dagoenik, baina lagin on bat badago; artxibo gisa du balio gehiago, ez baita aktualitateari atxikitako tresna bat, baina material interesgarria dago”.



ESKaintza: **MUNDU MASIBOAN, EUSKARA NON?**

Ez da askotan gertatzen, eta gertatzen denetan esan egin behar izaten da. Aurreko Pantailalditik hona, bi urte eta erdian, egoerak hobera egin du: euskararen presentzia igo egin da ikus-entzunezko plataformetan. Kantitatez bai, eta proportzioan ere bai. “Ez nahi eta behar beste, ordea”, esan dute elkarrizketatuek. Hobetzea ere, aitortzen dute, ez zela hain zaila; kaskarra zen duela bi urteko egoera.

Lehenik eta behin, Aginagaldek nabarmendu duenez, azpimarratzekoa da EiTbK Primeran sortu duela, baita haurrentzako edukia biltzen dituen Makusi ere. “Aktibazioa” egon da erakundeen partetik, bere arabera, herritarrek eginiko eskaerak argiak izan direlako. Baina euskarazko plataforma horietatik harago begiratuko dugu erreportaje honetan.

Pantailak Euskarazeko eta Zer Non Ikusiko kideek adierazi dutenez, duela bi urte eta erdi oso gutxi ziren streaming plataformetan euskaraz ikus zitezkeen edukia [jatorriz euskaraz direnak edo bikoiztuta edo azpidatzita euskaraz ikus daitezkeenak; horiei buruz ari gara “euskaraz ikusgai” diogunean]: plataforma ezagunen katalogoak batuta, dozena bat film baino ez zeuden euskaraz ikusgai 2022an. Gaur egun ehunka dira: erreportaje hau idazten ari garen unean, Netflix-en 266 eduki daude euskaraz eskuragarri, Amazon Prime Video-n 251, HBO Max-en 50 pasatxo eta Movistar Plus-en beste hainbeste. Horiek dira plataformarik ezagunenak edota erabilienak Euskal Herrian. Dena dela, plataformen artean euskara gehien eskaintzen duena Filmin da, 315 edukirekin. Ez kasualitatez. Izan ere, harekin lankidetzan aritzen dira Pantailak Euskarazekoak; *azpitoluak*. *eus*-eko azpitoluak pasatzen dizkiete.

“Panorama aldatu da”, dio Aginagaldek. Netflixen eta Prime Videon, gutxi gorabehera, katalogoaren %2-3 dago euskaraz, eta duela bi urte %0,1 zen: “Igoera nabarmena da, baina ehunekoak segitzen du oso txikia izaten”.

Dagoen gehien-gehiena azpidazketa da. Esaterako, Netflixek eskaintzen dituen 266 edukien artean, 227k dute euskarazko azpidazketa eta 39k audioa; eta Prime Videon, 251tik 189k azpidazketa eta 62k audioa. Dena dela, bai Pantailak Euskarazeko Aginagaldek eta bai Zer Non Ikusiko Eizagirrek zera azpimarratu dute: bi multinazional horietan, film eta telesail “onenak” –edo garestienak, bederen– euskarara bikoiztuta eman direla estreinatu ziren unetik bertatik. Netflixen kasuan *The Electric State* edo *Estatu elektrikoa*, bere historiako filmik garestiena izan dena; eta Prime Videon *The Wheel of Time* edo *Boterearen Eratzuna*, sekula Amazonen egin duen telesailik garestiena.

Ez pentsa, baina, plataformen politika denik film edota telesailik onenak euskarara ekartzea: erabaki zentzugabeak edo bestelako interesik duen erabakiak hartu izan ditu esaterako Amazonek. Aurten, gizonezkoen Real Madril futbol taldearen telesail dokumental bat azpidatzi du Prime Videok. Concha Velascori buruzkoa ere duela gutxikoa da. Eta, Luistxo Fernandezek oroitu duenez, Amazonek euskarara ekarritako lehenbiziko lanetako bat izan zen Don Omar reggaeton abeslari espainiarraren dokumentala.

“Zenbat ikustaldi edukiko dituzte euskarazko azpidatzi horiek?”, galdegina du Fernandezek. “Metrikari kasurik egingo ez balio bezala dabil bereziki Prime Video”. Helduei zuzendutako gaztelaniazko ekoizpen bati euskarazko azpidatziak ipintzeko inbertsioa egitea, beste aukera batzuk baztertuta, egiari zor, zentzugabea da; euskaraz dakien gehiengo zabalak ulertzen du gaztelania, eta, hortaz, ez lituzke azpidatziak ipiniko.

LEGEA BETETZEKO ARI AL DIRA?

Erreportaje honetako hiru elkarrizketatuei horixe galdetuta, zera erantzun dute: “Zein lege? Espainiako Ikus-Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra fikzioa da”.

2022ko maiatzean onartu zuen legea Espainiako Kongresuak. Euskalgintzaaren alorretik, katalanaren eta galegoaren bultzatzaileekin elkarlanean, xedapenak sartu nahian ibili ziren azken

*“Agerian utzi nahi
dugu euskarak
ikus-entzunezkoetan
duen presentzia txikia”*

Alex Aginagalde
Pantailak Euskaraz

*“Azken bi urteotako
igoera nabarmena da,
baina gutxi dira oraindik
euskarazko edukiak
plataformetan”*

Mikel Eizagirre
Zer Non Ikusi

*“Hegoaldeko euskaldunoi
gustatzen zaigu ikus-
entzunezkoak espainolera
bikoiztuta ikustea”*

Luistxo Fernandez
Azpitoluak.eus

uneraino. Eskatzen zuten streaming plataformetako katalogoen %6a gutxienez hizkuntza koofizialean ere egotea. Baina ez zen halakorik jasota geratu: soilik estatuan egoitza duten enpresei aplikatzen zaie xedapen hori, eta zerrendatik kanpo daude Netflix, Prime Video, Max eta Disney.

Hala ere, beste xedapen hau jaso zuen legeak: streaming plataformek estatuan dituzten etekinen zati bat bideratu behar dute, derrigorrez, hizkuntza koofizialeko edukiak sortu, bikoiztu edo azpidatzera. Zenbakietara ekarrita, Aginagalderen esanetan hauxe da Netflixen panorama: multinazionalak Espainian deklaratu dituen 2024ko irabazien arabera, milioi bat euro bideratu beharko lituzke horretara; hau da, hogeitau ordu bikoiztu eta beste 50 ordu azpidatzi.

Legea betetzen ari direla dio Aginagaldek, baina ordu kopuru abstraktu horiei falta zaie zehaztasun apurra: nork eta nola erabakitzen du zer bikoiztu, zer azpidatzi? Ez dago estrategia argirik.

KONTSUMOA: EUSKARAZ IKUSI NAHI DUGU?

Sentsazioez baino ezin digute hitz egin erreportajeko hiru hizlariak. Izan ere, ez Netflixek, ez Prime Videok eta ez inork ez du esaten zenbat jendeak aktibatu dituen euskarazko azpidatziak halako telesaila ikusteko, edo zenbatek ikusi duten besteko filma euskarara bikoiztuta. Enpresa pribatuak diren aldetik ez daude behartuta haien auzientziaren berri ematera, baina bada detaile bat hiru elkarrizketatuek aipatu dutena: Eusko Jaurlaritzak eta Movistarrek akordio bat sinatu zuten duela zenbait urte. Diru publikoaren truke, Movistarrek euskaraz ipintzen ditu bere ekoizpenak. Hortaz, elkarrizketatuen arabera, Jaurlaritzak eduki beharko lituzke –edo eskatu beharko lizkioke– datu horiek. Baina zalantza egin du Fernandezek. Eta zera gehitu du: “Susmoa dut datua oso txikia izango dela, jende gehienak ez dituela erabiliko”.

Horra bere ustea: “Garen bezalakoak gara. Hegoaldeko euskaldunoi gustatzen zaigu ikus-entzunezkoak espainolera bikoiztuta ikustea; salbu eta euskarazko produkzioa, jakina, baina hori oso gutxi da eta beste maila batean dago”. Eta gehitu du: “Frikismoaren ertzean kokatzen gara, uste dut, bertsio originalarekin eta euskarazko azpidatziekin ibiltzen garenok”.



Lan militantea

“Ohitura kontua” dela uste du Eizagirik, baita Aginagaldek ere, eta hizkuntza eta kultura zapaldu bat izateak zerikusia du horretan: “Espainiako supremazismo linguistikoa eta Frantziako jakobinismoaren ondorioz, ohitura horren barnean gaude gu ere”. Hor bada, gainera, bikoiztailerik duela urte batzuk eginiko ikerketa: EAEko herritarren %80ak nahiago ditu bikoiztutako edukiak azpidatziak baino. Dena dela, Aginagalderean arabera, sentsazioa du gizarteak gero eta tendentzia gehiago duela bertsio originala azpidatziekin ikusteko, bereziki gazteen artean.

NONDIK INDARTU?

“Ohitura” aipatu dute elkarrizketatuek. Ohiturak ez dira besterik gabe sortzen; egin egiten dira. Eta ikusentzunezkoen kontsumo garaikide honek afizio errotuagorik baldin badauka, hori zinema-aretoen jira da. Proiektzioen karteldegia edo afixategiari erreparatu besterik ez dago: gutxi dira bertsio originala eskaintzen duten aretoak, gutxi urteko proiektzio kopuruak.

Hortik hasi al daiteke tiraka, bertsio originala bultzatzen eta euskarazko azpidatziekin eskaintzen? “Pauso txiki bat” litzateke Aginagalderean, Eizagirreraren eta Fernandezaren arabera. Posible ikusten dute Belgikako ereduari jarraitzea, han bi hizkuntza ofizialekin azpidatzen baitituzte. Gurean ere ikusi da horrelakorik, betiere zine jaialdietan, esaterako Donostiako Zinemaldiaren Sail Ofizialean, baina hor gaztelaniak eta euskaraz ez dute presentzia bera izan; pantailaren luzera osoa hartzen zuten gaztelaniazko testuek, eta erdia euskarazkoek, beste erdia ingelesak izan zezan. Egingarria eta erraza litzateke berez, baita ekonomikoki ere, areto guztietan bertsio originaleko pelikulei euskarazko azpidatziak ipintzea.

Bikoizketa indartzea garestiagoa da, baina egin beharrekoa, motz ge-

Auzolanean egiten dute lan Pantailak Euskarazek, Zer Non Ikusik eta Azpituak.eus-ek, elkarrekintzan, bata bildutako datu eta estatistikak besteak erabiltzen ditu, hitzaldiak elkarrekin ematen dituzte...

Azpituak.eus ataria da hiruretan zaharrena. 2008an sortu zen, pirateriaren garaian, eta elkarlaneko lanak egin izan badira ere, ekimen pertsonalez egin dira azpidatziak gehienak, boluntarioki, film kuttun baten beste hizkuntza bateko azpidatzi testua eskuratu eta plazerez eta asmo onez itzuli euskarara, eta weben eskuragarri ipini. Zer Non Ikusi, berriz, duela hiru urte sortu zuten. Hiruzpalau pertsona ari dira boluntarioki lanean. Tresna bat garatu dute, egunero plataformak automatikoki eskaneatzeko, eta abisua heltzen zaie bezperatik nobedaderik badago. Halakorik gertatzean, eta boluntarioen batek denbora har dezakeenean, eduki berriaren fitxa osatu eta argitaratzen dute. Zinema atala, berriz, eskuz sartzen dute.

Egitaraua

Maiatzaren 6an hasi da Pantailaldia, gaelikozko *Kneecap* filmaren proiektioarekin, euskarazko azpidatziekin, Bilboko Kafe Antzokian. Hurrengo egunetan, maiatzaren 15era bitartean, hainbat ekintza proposatuko dituzte egunez egun: mugikorra euskaraz ipini, Zer Non Ikusi aplikazioa deskargatu, ARGIAren Multimendia kanala kontsultatu, *Berria*-ren Ikasgelako bideo bat ikusi, bideo-jokoei buruzko *Game Erauntsia*-ren saio bat jarraitu, *euskal-encondigs.eus* arakatu, *Urak eginen du bide* dokumentala ikusi...

ratzen dira-eta Jaurilaritzaren Zinema Euskaraz programaren diru partidak. Urtean hamar-hamabi film bikoizten dira programa horren bitartez. Normalean haurrentzako proiektioak izaten dira. “Ez dugu lortzen *takilla* bat euskaraz eskaintzea”, dio Aginagaldek. Orintsukoa da *Minecraft* pelikula, AEBetatik etorri den produkzio handia, eta hura bai, eman da euskaraz.

Bikoizketarako diru laguntzak sortzeak premiazkotzat jo dute Aginagaldek eta Eizagirik, eta Katalunia ipini dute adibidetzat, oro har bikoizketaz harago. Izan ere, 35 milioi euro bideratzen dituzte katalanezko ekoizpenetara, ekoizpen propio zein bikoizketa edo azpidazketara, baita sustapenera ere. Jaurilaritzak, berriz, 7,5 milioi euro. Aldea nabaria da. Baina duela bi urte okerrago zegoen panorama: gaurko aurrekontu herena.

Hirukoiztu dira partidak, eta horrek isla izango du aurtengo zine afizategietan. Lazkoak hobetuko direla espero da, eta premia dago, zeren datuak ez dira batere onak. Iaz, Euskal Herriko zinema komertzialeko estreinaldi guztien artean, %1,6 izan zen euskaraz –Hegoaldean %2,6 eta Iparraldean %0,4–. Eta kontuan hartu behar dira beste datu hauek: film bakoitzaren emanaldi kopuruak, ohi moduan zenbait “lan handik” asteak ematen baitituzte karteldegian. Bada, film guztien artean %1,6 baziren euskaraz, euskarazko emanaldi kopurua guztien %0,9 izan zen.

Aurrekontuak indartu eta zifrak hobetu ez ezik, urte askotarako planifikazioa beharrezkoa dela nabarmendu dute elkarrizketatuek, besteak beste, aurrez aipaturiko “ohitura kontuak” aldatzeko. Diru partidek lagun dezakete martxa igotzen, eskaintza hobetzen, eta apustuak hein batean hortik joan behar badu ere, jendea kontzientziatzen segitu behar da. Horretan egin dute azpimarra; horretara dator Pantailaldia. ●

BABESLEA:



ASTEKARIA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Nicolas Goñik hiru astean behin astekariko 'Net Hurbil' atalean idazten du.

Iparraldetik iritsitako erreportajeak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Finlandiatik igortzen dizkigu erreportajeak, hiru astean behin, gaur aurkeztera natorren kolaboratzaileak. Eta ez hasi flipatzen, ez da duela hamar urte Euskal Herriaz maitemindu eta Helsinki euskal etxean euskara ikasi duen finlandiar bat, C2a ateratzera iritsi dena eta orain euskaraz bizi dena. Ez. Urruñarra (Lapurdi) da bera, 1980an jaioa, Nicolas Goñi du izena eta arrantza ikertzailea da. Hala egin digu bere bizitokiaren deskribapena: "Turku hirian dut helbidea, baina babak, azak eta bertze hazten ditut Urruñan eta Finlandiako ekialdean".

Urte askoan Pello Zubiria Kaminok astekarian ondutako *Net Hurbil* atalean aritzen da, 2022ko udazkenetik, Jenofa Berhokoirigoin eta Urko Apaolaza Avilarekin batera. Ez da kazetari lanak egin dituen lehen aldia. *Enbata* hilabeteka-


rian 2020an hasi zen eta Euskal Irratietan ere betetzen du bizpahiru minutuko iritzien atala, *Goiz Berri* saioan. "Arrantza ikertzailea naiz ofizioz eta baratze-zaina afizioz. Elikatzen gaituzten ekosistemekin eta klimarekin lotura dute bi gai horiek; klima aldaketa dugun arazo handiena da eta kezka nagusia dut; azaldu digu. Bizi! Mugimenduko kide ere bada, "gaiak berak arduratuta".

"Irratirako iritzi labur formatu horretan ekosistemak, baliabideak eta horiekin gizarte gisan ditugun harreman korapilatsuak nituen aipagai askotan, baita interdependentzia ulertu beharra ere, pandemiak oroitarazi ziguna", aipatu digu. Berhokoirigoinak entzunak zituen iritzi horiek eta *Net Hurbil*-en berrantolaketa bururatu zitzaion Goñik irratiarako lantzen zituen gai horiek egoki sar zitezkeela ARGIA-n. Hor-tik proposamena.

GAIK ABSTRAKTUTIK KONKRETURA EKARRI NAHIAN

Klima, laborantza, baliabide naturalen ustiapena, kutsaduren inguruko injustizia, bioaniztasuna, desazkunde globalaren beharra... gai potoloak dira *Net Hurbil*-en lantzen direnak. "Gehiegitan modu oso abstraktuan edo teorikoan hautematen ditugun arazoak saiatzen naiz modu konkretuan aipatzen", azpimarratu du. Bizimoduak edo arazo zehatzak azaltzera jotzen du, adibidez, klima desoreka edo baliabide ustiapen desegokiaz mintzatzeko. "Jasangarritasun kontuak ez baitira bakarrik zenbaki handiak, baikik eta bizitzak ere, gehienak hedabide handietatik urrun. Eta arazoak aipatzeaz gain, heldulekuak ematen eta alternatiba konketuak erakusten ere saiatzen gara, mundu kaotiko honetan bizi baldintzen jabetza moduak izan daitezkeela gogoan edukitzeko", errematatu du. ●

Kartagotarrak ez ziren feniziarrak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Kartago, K.a. 814 inguruan. Feniziarrek kolonia bat fundatu zuten, eta Mediterraneo ekialdean nagusi zen zibilizazioa mendebaldera hedatu zen. Bi mende eta erdi geroago, Tiro feniziar metropolia gainbehera etorri zenean, Kartago independizatu egin zen eta bere eragina Mediterraneo mendebaldean hedatzen jarraitu zuen hiriburu punikoak. Baina feniziar hizkuntzari, literaturari, arteari eta erlijioari eutsi zion. Gainera, feniziar eta puniko hitzak sinonimoak dira, lehenak grekera jatorri izanik eta bigarrenak, aldiz, latina. Beraz, logikoa zen pentsatzea genetika ere partekatzen zutela, feniziarrek ustez mendebalderantz egindako migrazio masiboen ondorioz.

Baina azken bost urtetan sei herrialde-tako 70 ikerlari inguruk hipotesia bertan behera uztea lortu dute, Tunis, Sizilia, Eivissa, Almeria, Malaga edo Cadizeko hilerri punikoetako DNA aztertuta. Hama-bi hilerrian aurkitutako 210 gorpuren arrastoak aztertu dituzte guztira, eta *Nature* aldizkarian argitaratu dute ondorioa garbia: kolonia horietako biztanleek ez zuten inolako ahaidetasun genetikorik Ekialde Hurbileko jatorrizko feniziarrekin.

Gehienak Afrika iparraldeko, Siziliako edo Greziako biztanleekin nahastutako tokiko populazioaren oinordekoak ziren. Horrek esan nahi du feniziar kultura ez zela migrazio masiboen bidez hedatu, kultur transmisioaren eta asimilazioaren bidez baizik. "Kartagotarrena eza-gutzen dugun lehen globalizazioa da, bi



RAYMAR/MAEF

Puig des Molinseko nekropolia (Eivissa) izan da ikerlanean aztertutako aztarnategietako bat.

kontinente, Europa eta Afrika, hartzen dituen", laburbildu du Carles Lalueza-Fox Bartzelonako Natur Zientzien museoko zuzendari eta ikerlanaren egile nagusietakoak. Lehen kosmopolitismo saiakera horretan, kataluniar genetistak Bariako (Almeria) aztarnategiaren adibidea nabarmendu du; hainbat gorpuren DNAk adierazten du greziar jatorrikoak zirela. Beraz, "hiri puniko batean bizi zen komunitate greziarra zen". Gainera, Bariako hilobietako batean ostruka arrautza apaindu bat aurkitu dute eta horrek esan nahi du komunitate horrek Afrika Iparraldearekin loturak zituela.

Beste lotura harrigarri bat ere aurkitu dute, kartagotarren mugikortasun handiaren seinale: Kartagoko hilerrian aurkitutako indibiduo bat eta Siziliako beste bat lehengusu txikiak ziren.

Patxi Perez-Ramallo Bruselako Unibertsitate Libreko bioarkeologia taldeko ikerlariaren ustez, ikerlan zabal honek azterketa bide ugari zabaltzen dizkie arkeologo eta historialariei: "Nola funtzionatzen zuten feniziarren hasierako koloniek? Zer esan nahi du benetan feniziar edo kartagotar izatea? Eta nola definitzen zuten kultura horiek beren identitatea?". ●



SHANXIKO ARKEOLOGIA

Gizon ilehori bat VIII. mendeko Txinan?

Txinako Shanxi probintzian, Tang dinastiako hilobi batean, hildakoen eguneroko bizitzako eszenak irudikatzen dituzten pinturak topatu dituzte. Eszena horietako batean gizonezko ilehori bat agertzen da. Ilean koloreari eta aurpegierari erreparatuta, hilobia aztertutako arkeologoek diote ziurrenik ez zela Han etniakoa, baina ez dute

bestelako hipotesirik egin. Aldiz, ikerlanean parte hartu ez duen Victor Xiong historialariak (Western Michigan University) ezaugarri fisikoez gain pertsonaiaren jatzera hartu du kontuan eta ondorioztatu du gizon hura sogdiarra izan zitekeela, hau da, egungo Tajikistan eta Uzbekistan inguruetan zuela jatorria. ●

LURRERAKO GIZA ESKUBIDEA: GAUDENEN ETA ERAMAN GINTUZTENEN ALDE




AMANDA VERRONE

EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

Apirilaren 17an Brasilgo Eldorado do Carajás-en lurrik gabeko 21 langileen sarraskiaren urteurrena (aurten 29.a) da. Orduetik, La Vía Campesinak data oroitzen du Nekazarien Borroka Nazioarteko Egun gisa, lurrerako eskubidea defendatzeagatik koldarkeriaz erail zituzten pertsonen omenez. Indarkeria matxistak, gerrak, genozidioak eta lurraldekanporatzeen gorakadak markatutako une geopolitiko honetan, lurrerako eskubideak hil ala biziko kontua izaten jarraitzen du.

Andreontzat, gainera, lurra izateko eskubidea justizia sozialeko kontua ere bada, eta lotura estua du autonomiara, elikadura osasuntsurako, etxebizitza duinerako eta ondasun komunetarako eskubidearekin, merkatukoak edo familia heterosexualekoak ez diren beste logika batzuekin. Mundu osoan, emakumeok gizonezkoek baino eskuragarritasun gutxiago dugu lurrerako. Beste artikululu batean azaltzen nuen bezala, deserriratu egin gaituzte eta badakite. Hala ere, eskubide hori, bere horretan, luzarora egon da giza eskubideei buruzko eztabaidetatik kanpo.

Gauzak horrela, funtsezko giza eskubideei buruzko nazioarteko bederatzi itunetatik, lurrerako eskubidea bakarrean baino ez da aipatzen, eta landa-eremuetako emakumeen lurralde-eskubideen testuinguruan. Helburua da nekazaritza-erreformako politiketan, egon diren txoko bakanetan, diskriminazio sexistarik eza bermatzea. Familia barruko dinamika heteropatriarkalak saihesteko aurrerapauso handia da, zailantzarik gabe, baina ez da batere nahi-



koa planetako lur gehienak agronegozio transnazionalaren kontrolpean dituen errealitateari aurre egiteko.

Errealitate horren aurrean, duela 10 urte eskasetik hona, lurrerako giza eskubidea aitortzeko proposamenak indar pixka bat hartu du nazioarteko eztabaida juridikoan, jabetza-eskubide klasikoan ez jausteko alternatiba bezala. Izan ere, jabetza-eskubidea jasota dago, ez bakarrik Adierazpen Unibertsalaren 17. artikuluan, baita Arraza-Bereizkeria Mota Guztiak eta Emakumearen Aurkako Bereizkeriari buruzko Nazioarteko Konbentzioetan ere.

Zentzu horretan, beti argi izan behar dugun zerbait dago: Zuzenbideak ez du errealitatea aldatzen, baizik eta errealitateak Zuzenbidea aldatzen du. Eta gaur egun Euskal Herrian bizi dugun errealitateak erakusten diguna da nazio bezala behar dugun trantsizio ekofeministarekin kontsekuentea den lur lapurtua eskuratzeko politikan aurrera egin beharrean, EBren eta euskal erakunde eta enpresen apustua dela ekonomia kapitalista berreskuratzea, militarizazioaren eta gerraren industriaren bidez. Mugen (nekro)politika areagotzea eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak Palestinako herriaren aurkako genozidioa eragozteko duen ezintasuna dira horren ebidentzia laugarrienetako batzuk.

Azkenean, giza eskubidea aitortzeko proposamen oro txertatuta dago boterearen antolaketa geopolitiko bati erantzuten dion nazioarteko egitura juridiko batean.

Beraz, lurrerako giza eskubidea aitortzea garrantzitsua da bizitzaren zaintza antolatzeke beste modu batzuk irudikatzeke –baita juridikoki ere–, baina, betiere, erakundeen, finantza-organismoen eta barne-oligarkien erantzukizuna bere gain hartzen badu. Gaur egun existitzen diren eskubide askoren edukiak gauzatzea oztopatzen duten faktoreen aurkako borondate eraldatzailerik ez badago, lurrerako giza eskubideak nekez ekarriko du andreentzako ondo bizitzea landa eremuan. Apirilaren 17etan, eraman gintuztenei egin diezaiekegun omenaldirik onena borrokan jarraitzea da. ●

A ZE FAUNA!

ITSASOAN
KATUA
MARRAZO

ENEKO BACHILLER
OTAMENDI
ARANZADI



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

Gure hondartzak marrazoz betarik daude. Igerilariak lasai egon, kostaldean 100-200 metroko sakoneran ditugun hondartza zabalez ari bainaiz. Bertan bizi da Atlantikoko marrazo ugariena eta txikiena. Katu arrain modura izendatua bada ere, bestelako katuekin alderatuta katu kosmikoarekin bezainbesteko antzekotasuna du, duen begiradagatik ez bada; gepardoak katu handitzat dituenarentzat ere, balekoa agian. Filmetakoen aldean, marrazo honek itxura atseгина du, eta bere hortzak, hainbat lerrotan banatuta bai, baina oso txikiak dira. Askok diren arren, zaila da bizirik ikustea, ez baitira ur-ertzerak hurbiltzen. Eta gure interes gastronomikotik at dauden heinean, ezer gutxi dakigu haien inguruan.

Pikartadura beltzez jositako gainalde marroixka aproposa dute hondoarekin mimetizatzeko. Sabelalde berriz, zuria da. Buruaren albo banatara bost zakatz pare dituzte, eta begien atzean, espirakulu bana, arrain kartilagodun gehien adierazgarri dena. Geldi daudenean arnasteko, ahoa ireki eta itxiz ura ponpatzen dute; hondarrean lurperatuz gero ordea, ura espirakuluetan zehar xurgatuz iragazi dezakete. Zortzi hegats dituzte, tartean bi dorsal, gainontzeko marrazoek baino zertxobait atzerago kokatuta. Arrak bereizteko, “kloaka” inguruan (uzkiari hala deritzo arrainetan) ikus daitekeen zakil pareari erreparatzea besterik ez dugu; eta bestela,

KATU ARRAINA

Scyliorhinus canicula

TALDEA: Ornoduna / Arraina.

NEURRIA: Jaio-berriek 9-10 cm; helduek 60-70 cm (1 Kg gehienez).

NON BIZI DA? Ozeano Atlantikoaren ipar-ekialdean eta Mediterraneoan. Normalean 100-200 metroko hondotan, baina 400 metroko sakoneran ere bizi daiteke.

ZER JATEN DU? Krustazeo, molusku, poliketo, zefalopodo eta arrain txikiak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

jo Aquarium-era, katu arrainen ahaide diren zezen-marrazoetan errazago bereizten baitira.

Egunez lohi edo hondarrezko hondotan ezarrita egoten dira –arrokak egonez gero, bertan ezkutatuta ere bai–; gauez, ordea, haien jardura handitzen dute eta molusku, arrain txiki, krustazeo, xixare nahiz txibiak ehizatzen ari-tzen dira.

Kantauri itsasoan haien ugalketagarai nagusia negu eta udaberri aldera izan ohi da. Espezie “obiparoa” izaki, barne ernalketa bidez ugaltu ostean,

emeak arrautzak askatuko ditu; errute bakoitzean bi, eta baldintzen arabera, urtean 20tik 100era. Katu arrainen arrautzek 5x2 cm-ko azalera eta 1 cm lodierako kartilagozko zaku itxura dute, lau ertzetan kiribildutako hari sendoak dituztenak, inguruko alga nahiz koralletan ongi kateatzeko. Izan ere, bertan geratuko baitira, uraren tenperaturaren arabera 5etik 11 hilabetera, kumea garatutakoan zakua apurtu eta igerian aske hasiko den arte.

Beharbada, metal astunak pilotzen dituztela erakusten duten ikerketek, izokin inguruan egindakoei baino garrantzi handiagoa emango zitzaizkien. Eta arrainok duten azal gogorrak ere izango zuen eragina, garai batean egurra lantzeko lixa modura erabilia baitzen (eta hala izendatua, Bizkaiko kostaldeko hainbat herritan ere). Kasuak kasu, arrastre-arrantzan beste espezie preziatuagoekin batera harrapatutako katu arrain asko uretara itzultzen dira, arrantza-bazterkin modura; sarritan, hilda. Hala, arraindegietan oraindik ere topatu daitekeen arrain hau erosi ez, eta gehienez azala ukitzera helduko ginen ziurrenik, marrazoen azalaren ehundura sentitzeko edo. Gure aiton-amonek, ordea, ongi ezagutuko zuten sukalki eder baterako aproposa den eguneko arrain merke eta zapoetsua. Mediterraneoan nahiz Galiziako hainbat herritan oraindik ere ongi dakite. Beraz, ez galdu aukera; ospea hartu aurretik, badaezpada. ●

HAZI BATETIK MUNDU GUZTIAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Lagun asko dut. Ezagutzen ditudanetatik hegalaria jendea da mordoxxa bat. Duela hiru bat urte, horietako baten bisita izan nuen; ez dut gogoan nor zen. Antxeta mokogorria izan zitekeen, edo zozo eme bat, edo saldo handietan ibiltzen diren arabazozo pikart horietakoren bat, edo haitz-usoa, edo pagauso potxolo bat.

Bisitan, etxe aurreko hesian dauden tantai luzeetako batean jarri zen, inguruan bele, miru beltz edo zapelatz etsairik ba ote zebilen zaintzeaz gain paisaiatz gozatzen. Mendebalak gozo jotzen zuen abagunean, sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) masteleroaren muturretik ttak salta, frist abiatzerako zirin dosia askatu, blang-blanc hego pareta zabaldu eta badao beheaxeagoko marrubidia (*Fragaria x ananassa*) miaztera.

Lagunak ditut bista edertu, ingurua doinu jantzi eta fruituen jateko sasoi aneanean onenak, ederrenak zein diren, mokoarekin xaki, markatzeagatik. Gure amona Zubietako Barrenetxeko Joxepa Amunarriz Arostegi zenak hala erakutsi zigun: marrubi edo sagar (*Malus domestica*) edo udare (*Pyrus communis*) edo arana (*Prunus domestica*) edo gerezi (*Prunus avium*) onena txoriren bat jaten hasi eta mokoarekin zulatutako hura zen.

Hartu eta eraman bakarrik ez, eman eta utzi ere egiten dute hegaztiak. Bere zirin aberats horretan, landareentzako elikagai on asko zabaltzen dute. Eta haziak. Hegazti ugariaren elikaduran, garrantzi handia dute fruituek eta haziak; fruitujale edo bihijale esaten zaie.

Duela hiru urteko bisita hark arrastoa utzi zuen, zirin pustila mastelero tantaiaren oinean. Eta oparia barruan, hazi bat. Hazi gogor bat jan zuen hegaztiak, bere errotan edo heran dituen harri txintzarrekin ehotzen saiatu eta azala urratu besterik ez egin, gero urradura horiek digestioko azidoek sakondu eta zirin-faran hor doa arrautzak jartzeko zulotik. Zirinetan bapo doa haziak, erortzen den tokian erortzen dela bere ongarri dosiak inguratuta lurreratuko da.



JAKOBA ERREKONDO

Hazia ernatu orduko jakiak eskura, sustraira, sustraiaren harmen, ezin hobeto.

Ba bisita haren ondorioz zuhaitz eder bat jaio zen atariko hesi nahasian, almeza edo basaka edo urkitza edo xarma esaten zaion zuhaitza (*Celtis australis*). Gure inguruan ez da ohikoa, eta etxe inguruko landaredian ez nuke nik landatuko. Kaleetan eta parkeetan ikusten da Euskal Herri hezean; ugariagoa da aieka lehorrean eta bertakotuta ia nonahi topa dezakezu. Non jan ote zuen gurean jaiotako zuhaitzaren haziak?

Almezaren haziak toxikoak dira gaztetan; berde direnean ez jateko garbi adierazten dute: mikatz-mikatzak dira. Gero gorritza-horixkara mudatzen dira, toxiko baita ere, eta azkenean beltz distira urdinxkarekin "etorri-etorri, orain jateko modukoak gara" esaten dio jan nahi duenari. Ugaria den tokietan jendeak jaten ditu, baita anisetan edo uxualetan beratu eta likore gisa hartu ere. Gozua izango da, agi danean, zenbait tokitan azukrearen ordezkoko erabili izan da-eta.

Beste animaliek ere jaten dute almez haziak: jendeak, azeriak, azkonarrak eta

lepazuriak behintzat bai. Horietakoren batek erein-simaurtu ote zuen almez hau eman duen haziak?

Urte batzuk badira Berastegiko azokan bertoko Andres Etxeberria Iztueta zurgina ezagutu nuela. Hark erakutsi zidan almezaren egurra aziendaren zintzarrien lepa-uztaiak egiteko erabiltzen zuela. Bere egurra oso biguna da, moldatzen erraza; ezagutuko duzu, erabat egurrezkoak diren sarde horiek almezezkoak dira.

Jose Etxegarai Eizagirre jatorri euskalduneko idazle madrildarrak 1904an Literaturako Nobel saria eskuratu zuen Frederic Mistral Poulinet idazle okzitaniarrekin batera. Mistral horren lehenengoetako lan bat, "*Mireio*", ekarri zuen euskarara Orixek, eta han ageri da maiz almeza, baina Nikolasek "basaka" esaten dio. Horietako batean honela itzuli zuen: "Eta Maiatzak irri egitean basakaetan eratxikitzen diren erlekumeak". Erlekume sasoia ere bada, bai, hau.

Istorio horiek denak eta etorriko diren gehiago jaio dira gure etxe atarian. Hazi batetik abiatzen dira mundu guztiak, eta gu. ●

AMILLUBI

UDABERRIKO FESTA,
AGROEKOLOGIA OSPATZEKO

GARAZI ZABALETA

Maiatzaren 10ean egun oso-ko festa berezia antolatu dute Zestoako Amilibia baserrian. Agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren alde, Gipuzkoako Biolur elkar-
teak abiatutako proiektua da Amillubi, eta udaberriko hitzordua aitzakia paregabea izanen da tarte eder bat partekatu eta herritarrak proiektura hurbiltzeko. Hausnarketarako eta ikasketarako eskaintza, festarako proposamenekin uztartuko dituzte. “Komunitatea sortzea eta elikatzen jarraitzea du helburu festak, gozamenetik elkartzeko, trukea egiteko eta elkar ezagutzeko espazio bat irekitzea”, diote proiektuaren bul-tzatzaileek.

**ERRELEBOA ETA
KOLEKTIBOTASUNA GAI,
GOIZEKO MAHAI-INGURUETAN**

Goizeko 9:30ean hasiko da eguna ongi-etorriarekin, eta 10:00etan ekinen diote agroekologiako antolaketa kolektiboko esperientzien inguruko mahai-inguruari. Baztango Eztibeltza kooperatibak, Izurtzako Eskubartz elkar-
teak eta Ber-garako Ereindajan kooperatibak hartuko dute parte lehen ekitaldi horretan. 12:00etan, berriz, erreleboaren inguruko solasaldian izanen dira Errigoitiko Bizkaigane kooperatiba, Baztango Xurie proiektua eta Anoetako Sarobe base-
rria. “Hausnarketarako eta beste espe-
rientzietatik elikatze-
ko aukera izanen
dugu goizean, hain justu, Amillubin ere

etorkizunera begira zein proiektu eta nola gauzatuko diren pentsatu beharko dugu-eta”, gehitu dute.

Eguerdiko bazkaria eta gero, arratsaldean, festa giroa nagusituko da: poesia musikatua, bakarrizketa, Elektropot-totte elektrotxaranga, La Jodedera mu-sika taldea eta DJ Kurkubit ariko dira, eta haurren txokoa eta ipuin kontalaria ere izanen dira. “Publiko guztiarentzat plan aproposa izan daitekeela uste dugu, bai agroekologia gertutik ezagutu edo bizi duenarentzat, baita beste edono-
rentzat ere”, diote. Amillubi proiektura eta agroekologiara gerturatzeko modu bat izan daiteke udaberriko hitzordua, antolatzailen ustez, eta haurrekin joa-
teko ere aukera ederra. Nabarmendu dutenez, eguneko otorduak eta barra bertako osagai agroekologikoz horni-
tuak egonen dira. Nola bestela?

**FESTARAKO SOROA TXIKI
GELDITZEA, SEINALE ONA**

Ospakizuna Amillubin bertan izanik, askorentzat tokia ezagutzeko aukera izanen da festa. “Iaz lur-
rak oraindik ez ziren lantzen ari, orduko festan egon zirenek urte batean egon den aldaketa ikusiko dute. Aurten ezingo dugu festa toki berean egin, garia eta porrua erein-
da egonen direlako orain... baina, tira, hori seinale ona da”, diote.

Amillubi baserria eta lur-
rak ordain-tzeko diru-bilketarekin segitzen du proiektuak oraindik, eta festaren hel-
buru nagusia hori izan ez arren, sos pix-
ka bat egiteko ekimena ere proposatu dute: nekazaritza tresnen eta produk-
tuen bigarren eskuko azoka. 12:00etatik 19:00etara izanen da hori, eta 14:00ak arte egonen da materiala dohaintzan emateko aukera. ●



ARNAUT OIHENART

‘O.TEN GAZTAROA NEURTITZETAN’

Nehor ere hura bezi

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Orain denak aita santua baino frantziskotarrago bihurtu zaizkigunez, komeni da gogoratzea gure klasiko ez-sotanadunez. XVII. mendean izan zen bat, haren grazia zen Arnaut Oihenart. Eta ezin gaitezkeenez murgildu haren lan guztietan, gaur goretsiko dugu *O.ten gaztaroa neurtitzetan*.

Hirutan hamar poema inguru dituzu, dasta ditzazun net gutziatsu; lehenengotik aurrera, zaramatza ametsera. Garratzetik ere badu ametsak baina, gozotik izaten duen haina. Ondo aditu maisuaren hitzak, aitzinean baituzu, probetxa zakitza: “Hiltzea gaitz da, gaitzago bana / Mait’ ukan et’ ez mait’ izana”; “Zer probetxu edertaruna / da hire gorputzean / tink bihotzean / badatxen gogortaruna?”. Halako asko eta ugari daurkituzu, Oihenartekin promenatuz gero usu: amodioaren mina, nahi eta ezina, eztiaren ordez ahoan erretxina.

Poetak bereizi baitzituen errima arrak eta errima emeak, neurtitzo-

tan guztiz nagusi ageri dira emazteak. Fermuki zituen salatu haien aurkako injustiziak eta diru-gosez adostutako ezkontzen maliziak: “Onarzun-truku huts alab’ ezkontzea / ezta hori ezkontze, bana da saltzea. / Haren erosle senarrak / zer merezi luke? Adarrak”. Goratu zituen halaber, bere maiteen gorputzak –igartzen zaizkio, hala ere, gehiago ez ikustearen zaputzak–: “Hanbatez beud’ erranak / agerriz dadutzanak; / eztazkit, ezterrazket / gordailuan daunzanak”. Konparazioen artea menderatzen zuen nahieran, zenbaitetan xelebre egiten zaigun arren, aukeran: “Oin tipiz herotsduna, / zango aratsu, xuguna, / eskua xuri nola / arraulze berri erruna”.

Baina neurtitzetako nesken bertute kolekzioa ez dezakegu sinista, eta komeni da arretaz irakurtzea zenbait kritikari feminista. Orduko moralak, orain bezala, nahi baitzitu en emazte-ainguriak, *Zuzi iraxegia*

liburuan esplikatzen duenez Amaia Alvarez Uriak: izan ere, Oihenarten poemetako maitagaiei buruzko perfumeak, “erakusten dute nolakoa izan behar den maite den emakumea”. Eta emakume hori, poeta ez dadin estona, behar da izan “graziaduna, argia, garbia, birjina eta ona”.


Sorpresa handiak ere badira hargatik, ari naiz noski Oihenarten koplengatik. Haietako batzuk ez zituen ezagutuko inorrek, duela gutxi aurkitu izan ez balitu Bilbao deitua duen Gidorrek. Beharrik zituela Grenobleko liburutegian harrapa, *Jorraleen koblak* irakurtzeak gogora baitakar *gangsta* rapa. Mutilak neskari putaka, Xikitoak ez du izutzen Perraka: “Eihera txarrak tanka-tanka / gure horzarrak ozen zanka; / ozenago dun hir(e) oheak / gau oroz deraman karranka. Perraka”; “O, ertxozar buru-zoroo! / Karranka hur(a) en(e) ohekoa / ezin dukek –luharras niatzak–, / baina duk hir(e) amets erhoa. Xikito”.

Laburbilduz, harreman sexu-afektiboetan, Oihenart berdin nahasi zela goi eta behe pasioetan. Baina inporta duen bakarra ez baita zer, baizik eta nola, alor horretan irakatsi zigun hitzak nola ahal ziren beste era batera antola –horregatik hainbeste #damola–. Eredutzat harturik neurtitz espainiar, frantziar eta Italiakoak, moldeak puskatu zituen Zuberoakoak. Gure letren historian Oihenart ez baita bultua, ez du behar, baina eskatzen dugu haren-tzat indultua, posible egin zuelako euskal poesia kultua –euskal literaturaren irlak Oihenart baitu izena, inork aurkitzen ez badu galdutako Bertrand Zalgizerena–.

Aurelia Arkotxaren hitzetan izan zen errenazimenduko humanista, eta bere neurtitzek jarraitzen dute arau neopetrarkista. Ikertzaile batzuen arabera preziosista, besteek lotu dute garaiko molde batekin, zeina den kontzeptista. Esan beharrik ez dago, gure testuingurua da net populista, eta hori guztia goraipatzeak irain gogorra du: “Elitista!” –zenbatzen dituzte, bat, bi, hiru, lau, mahaian dauden dilistak; eta lau, hiru, bi, bat, dituzte iraintzen auzoko estilistak–. Horrelakoak parajeotan egin badituzte aldarri, nik behintzat, duda gutxi dut, bihotza dutela harri: “Etzintezkea jagoiti unha / ene hain gaizki tratatzez? / beti zuzaz ezin enzuna / lan duketa deitoratzez?”.

Eta ezin da fede bateko itsua beste ezertara bihurtu, baina hainbeste eskatzea ote da? Oihenart: ezagutu. Mintzo baitzaigu poeta zaharra gaurko gai berri-zaharrez, fanatismoaz, itsukeriaz, martiriez, militarrez: “Orai gerlako bandera / du Alferitzak ahurrera / orai nabaritu doa / kurutze misterioa”.

Horri gutxi iritziz gero, bada Oihenart bat transgenero: *Laur karrarien eresia* gutxi da irakatsia, baina darakus bitarkeria aspaldi zela hautsia: “Hango atea baratx jorik / morroin bat han-berekorik / ager zekion, begitartez / anderauren gisakorik. // Ustez zen anderaurena, / ager zezon bere pena, / bai et’ eska hur edo arno / apur baten ahamena” –poema narratiboa duzu gainera, Meaberen azkena bezain alegera–. Eta The Proclaimers entzun bazenuen *I’m Gonna Be (500 miles)* kantari, jakin behar duzu Oihenart izan zutela aurrekari: “Zur’ ikusteko eginik nago / borz lekoa bide lauretan, / bait’ are hamar gehiago / ez behin, bai zi anhitzetan”. Segi nezake luzaz Oihenarten neurtitzak gaurkotzen, baina liburu fina duzu eta eskuetan hartzeak ez du gaixotzen. Nireak hemen dira kito, Perraka eta Xikito: neurririk gabe et’ erriman trakets, Oihenart imitatu nahiz, lortu gabe ere esan ahalko dut “ni behintzat saiatu naiz”. ●



JON MIRANDEREKIN DANTZAN I

Nor zen Jon Mirande?

Miresmen adina gaitzespen sortzen duen pertsonaia da, oraindik ere, Jon Mirande, hura hil eta 50 urte pasatxora. Karrikiri elkar-teak eta Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak (IHEO) *Jon Miranderekin dantz* izeneko jardunaldiak antolatu dituzte idazlearen jaio-tzaren 100 urteen ospakizunaren kariatara. Josu Martinez zinema zuzendariaren *Mirande, film bat egiteko zirriborroa* eman zuten

ekimenari hasiera emateko, eta *Orhoituz* errezitaldia egin zuten apirilaren 5ean. Bi tertulierekin osatu dute egitarau monogra-fikoa. Lehen, artikulu honi izenburu ipini diogun galderaren gainekoa. Jardunaldie-tako azken egunean, pertsonaia horrek sor-tzen duen debatearen gaineko soluzio bila: *Zer egin Jon Miranderekin?* Bi tertulia horiek emandakoa jaso dugu bi artikulutan.

 IÑIGO SATRUSTEGI ANDRES

Galdera zuzena zuen hitzaldiaren izenburuari erantzun argi batekin erantzun zioten Karrikirin: Jon Mirande idazlea zen. Jakina, Mirandez ari garenean argi-itzalak ere badira, eta idazle hitzari gailentzen zaizkio, sarri aski, beste izenondo batzuk: *pedofilo* edo *nazi*, batez ere.

Txiki geratu zen Karrikiriren denda solasaldira bertaratu ziren entzuleen-tzat. Batzu-batzuk zutik geratu ziren hitzaldiak iraun zuen ordu eta erdian. Esan beharra daukat, era berean, sal-buespen gutxi batzuk kenduta, gazte gu-txi izan ginela bertan. Agerikoa da, hor-taz: edo Mirande kantzela dute, edo ez da gazteen intereseko. Ez behintzat han izan ziren 30 lagun irakurzale, idazle eta kulturzaleentzat bezainbeste.

Santi Leoné IHEOko irakasleak gidatu zuen saioa, eta Miel A. Elustondo kazeta-ria eta Mikel Soto idazlea gonbidatu zi-tuzten Mirandez aritzera. Luze mintzatu ziren idazleari buruz, eta informazio sal-doa eskaini zieten entzuleei. Iturriak eta datuak, aipuak, inpresioak... Ez dira ka-

bitzen artikulu honetan horiek guztiak. Hona hemen, halere, Miranderen figura ulertzeko zenbait gako.

Parisen sortu zen Mirande, 1925ean. Gurasoak zuberotarrak ziren arren, ez zuten haurra euskaraz hezi; Sotoren arabera, “Frantzian integratzeko aspira-zioa” baitzuten. Idazlearen euskaldun-tze berantiarrak zera esan zuen Sotok: “Euskal literatura iraultzera etorri diren idazleak euskaldun berriak dira: Aresti, Txillardeg... Mirande ez da salbuespe-na”. Erantsi zuen erraztasuna zuela hiz-kuntzekin.

Mirande, Parisko Goursez Vreizh kultur elkarte bretoian egin zituen la-gunekin ohartu zen euskalduna zela, euskaraz ez bazekien ere. Apaiz batekin euskalduntzen hasi omen zen, baina ez dago hori frogatzen duen lekukotzarik; bai, ordea, 1940eko hamarkadan, eus-kal ordezkaritza ikasi zuela Andima Ibinagabeitiarekin. Deabruaren Eskola-ko kidea da Soto, eta azaldu zuen gutun batzuk topatu zituztela, eta bertan adie-razten dela idazlea euskarara gerturatu

zela abertzaletasunaren bila, eta, batez ere, literaturaren bila. Sotok Mirande-ri buruzko ikerketa du eskuartean; iaz Tene Mujika Beka jaso baitzuen hari bu-ruzko proiektu bat egiteko.

Bide berriak ireki zizkion euskarak Miranderi. 1950eko hamarkadarako gi-puzkera eta Ipar Euskal Herriko euskal-kiak kontrolatzen zituen, eta ordurako lagun talde bat eta zirkulu literario bat osatu zuen, Andimarekin ez ezik, Txo-min eta Robert Peillen anaiekin ere.

Elustondok, bere aldetik, hitzaldia-ren hasieran “errespetua” eskatu zuen Miranderekiko. Nerbioetako depresioa sufritzen zuen, eta hori zela eta, ara-zoak zituen loarekin. Kazetariaren us-tez “egur gehiegi eman zaio gizajoari eta irakurtzea merezi du”. Laudorioak haren poesia, gutun eta artikuluentzat. Era berean, gehitu zuen oso informa-zio urria dagoela Mirandez 1948 urtea baino lehenagokoa, eta egin dena, Pablo Aristorenak egindako lanari esker izan dela aitortu dute bai Elustondok baita Sotok ere. Alaba bat izan zuela eta zor-

tzi-bederatzi hilabeterekin hil egin zela; beste alaba bat izan zuela, Simone, eta izeba-osabek hezi zutela Zuberoan. Alaba euskaraz hezi zen eta frantses apurra baino ez zuen kontrolatzen. Mirande, berriz, frantsesez moldatzen zen, artean euskararik ez. Elustondoren hitzetan, familiako traumak izan ziren horiek. Ikasketetan ederki moldatzen zela ere azaldu zuen kazetariak, eta 1944an, Frantziaren liberazioaren urte berean, Finantza ministerioan ibili zela lanean.

SINPATIA POLITIKOAK

Miranderen sinpatia politikoak ez dira oharkabeen pasatzen. Are, hori izaten da askorentzat determinantea haren gaineko iritzia sortzeko. Bada gutun bat, 1948koa, Mirandek berak bere burua kristautzat eta demokratizat adierazten duena. Bi urte geroagoko beste idazki batean, berriz, pentsamendu arrazistak eta antidemokratikoak aitortzen ditu. Biratze ideologiko horretan gakoa izan zen Goursez Vreizh-en inguruan aritzen ziren Miranderen adiskideak, Goulven Pennaod eta Roger Hervé, besteak beste. Hizkuntzekiko zaletasunak ez ezik, Frantziarekiko gorrotoak ere asko lotzen zituen. Leonék, bitxikeria gisa, gogora ekarri du Txomin Peillenek esan izan zuela lagun horiek alkoholismora eramane zutela, eta, finean, ez zirela konpainia ona.

Euskal Herriko eta Britainiako abertzaletasunen arteko aldeak ekarri zituen Sotok hori nolabait ulertarazteko: euskal abertzaletasuna arrazatik jaio zen, eta denborarekin aldatu egingo zen kulturarentz-eta; bretoien abertzaletasunak, berriz, kontrako bidea egin zuen II. Mundu Gerraren testuinguruan, kulturatik arraza eta identitaterantz. Hain justu, bretoi ugari nazien bandoan kolaboratu zuten. Horrez gainera, Sotok beste argudio hau ekarri zuen: “Mirandek esaten zituen gauza batzuk euskaldunek ez genituen entzun nahi, eta, aldiz, bretoiek interes hori bazuten”. Frantziako IV. Errepublikaren ezaugarriak ere kontuan hartzeak direla azpimarratu zuen.

Datuek, pasarteek eta idazkiek poliki-poliki bete zituzten mahai-inguruaren minutuak. Abertzaletasunaren krisia eta horrek irekitzen zuen markoa, Miranderen lan argitaragabeak, *Igela* aldizkaria, idazlearen heriotza, eta gaur egungo gizartean eta memorian duen tokia izan zituzten hizpide.

Argigarria izan zen, esaterako, solasaldiaren amaiera aldera, Elustondok irakurri eta azaldu egin zituela Jokin Zaitegiri poema bati buruz idatzitakoak. Madalena izeneko lehengusina gazte batekin maitemindu zela kontatzen zion, eta poema bat idatzi ziola. 15 urte baino ez zituen neskak. Hasieratik bertatik azaltzen dio

Zaitegiri zalantzak dituela poemarekin, eta estrofa bakoitzean zer esaten zuen azaltzen dio gutunean. Horietako batean oso era esplizituan adierazten du Mirandek jakitun dela harekiko zituen pentsamenduak ez zirela egokiak: batetik, kusia zelako; eta bestetik, gaztea zelako. Eta gogoari eutsi behar ziola. Hobe zituela gogo-pentsamendu horiek ez gauzatu, eta, are hobe, desagertuko balira. Bestela esanda, Mirande bera onartzen ari zen gutun horretan intzestua eta pedofilia gaitzesten zituela.

Ildo horretan zabaldu zuen debatea ikusleetako batek, esanez *Haur besoe-takoa* eta gisa horretako lanak “iraingarriak” direla. Bai gaiaren aldetik, baina baita trataeraren aldetik ere. Egilearen eta obraren arteko debatea mahai gainerratu zen, zalantzan jarrita fikzioa ote zen edo ez eleberrian kontatzen zena. “Navokoven *Lolita* edo Inazio Mujika Iraolaren ipuina, nork ez ditu ezagutzen?”.

“Mirandez hitz egiterakoan, ez zara sekula aspertzen”, esan zuen Sotok ondorio gisa. Izan ere, haren heriotzatik 50 urte baino gehiago pasa direnean, agertzen ari dira oraindik ere ezkutuan ziren testuak. Asko dago ezagutzeko, eta gutxi mahai gainean dagoena.

Nor zen Jon Mirande argitu asmoz antolatutako hitzaldian, zalantza gehiago sortu ote zituen beste kontu bat da. ●



JON MIRANDEREKIN DANTZAN II

Zer egin Jon Miranderekin?

Aurreko tertuliako galderari erantzuteko beste modu bat izan zitekeen, akaso modu inplizituago batean, bigarren solasaldi honetako izenburua. Figura literarioaz gaindi, pertsonaia zalantzan jartzeko, edo, kontrara, pertsonaiaren testuingurua ulertze-

ko saiakera bat. Santi Leonék gidatu zuen saioa beste behin, oraingoan, Hizkuntza Eskolako aretoan, eta nabarmen jende gutxiagoren aurrean. Katixa Dolhare-Zaldunbidek, Amaia Elizalde eta Gorka Bereziartuak izan zuten Mirandez aritzeko parada.

 IÑIGO SATRUSTEGI ANDRES  JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Idazlearen eta pertsonaiaren arteko auzia izan zen, ziurrenik, solasaldi honen hari nagusia. Horri ekin aurretik, ordea, gaur egundik erreparatuta Mirande nor zen galdegin zien gidariak gonbidatuei. Hirurek goraipatu zuten haren alderdi literarioa. Dolhare-Zaldunbide idazle, literaturan doktore eta ARGIAko kolaboratzaileak honela esan zuen: “goi mailako idazlea” izan zela, eta era berean, “gauza sakratuen gizartean, polemika sortu zuena”.

Miranderen lana gertutik ezagutzen du Amaia Elizalde, izan ere, *Haur Besoetakoa* aztertu zuen haren doktoregotesian. “Irla” eta “satelite” hitzak erabili zituen paristarra definitzeko: “Bide urratzaile garrantzitsua izan zen, eta, kontzienteki, etorkizuneko publiko barentzat idatzi zuen”.

Bere aldetik, orriotako ezagun Gorka Bereziartuak “ardi beltzaren figura” ekarri zuen. Haren ustez, garaikideak izan ziren idazleek euskal literaturari bideak eta korronteak sortu bazizkionten ere, Mirandek ez zuen halako jarraipenik izan, “ez dakit hainbeste obra literarioagatik beragatik, edo gehiago

bere jarrera politiko batzuegatik”.

Korronte eta jarraitzailek ezaren kontuarekin zalantza adierazi zuen Elizalde. Adibidera eman zituen Pott banda edo *Ustela*-ren gisako aldizkari autonomoak, zeinak, Elizalderen arabera, Mirandek eta Peillenek sortu zuten *Igela*-ren eragin nabarmena baitzuten. *Haur Besoetakoa*-k izan zuen eragina ere azpimarratu zuen, izan ere, 1987an bi argitaletxe eman zuten argitara.

Elizalde uste du ez dagoela zertan irakurri Mirande, literatura ez delako obligazio bat, “literaturak eta arteak hori du ona”, eta nahi denean, albo utz daiteke. Aitzitik, argi adierazi zuen euskal literaturaren ibilbidea aztertzeke “pieza garrantzitsua” dela. Dolhare-Zaldunbidek ere antzeratsu adierazi zuen, “garai zentsuratzailerik eta moralizatzailean gaude”, eta bide horretatik aldarrikatu 100 urte geroago idazlearekiko zentsurarekin amaitu behar dela.

ARTISTA ETA ARTELANA

Bolo-bolo dabil literaturaren –zuzenagoak izatera, arte adierazpenen– egileekiko autonomiaren gaia. Solasaldian

ez zitzaion gehiegi kostatu kuku egitea. Bereziartuak, hain zuzen ere, bere hitzartzeetako batean esan zuen Miranderen testuinguru jakin horretan hasi zela gurean horretaz eztabaidatzen. Kritika zorrotzak izan ditu *Haur Besoetakoa*-k, bistan da, hemen segitzen baitugu gaia-ekin bueltaka, 50 urte geroago. Obra eta egilea bereizi daitezkeen bainoago, kasu honetan, egilea eta narratzailearen arteko mugetara ekarri zuen Leonék eztabaida. Bestela esanda, ea zein den problema Miranderen eleberraren irakurketa posibleez.

Euskarazko artistekin dugun zorrotasuna aipatu zuen Elizalde. Arazoa non, hortxe egon daitekeela uste du. Izan ere, gure komunitatean, hiztun eta irakurle kopurua kontuan izanik, esan zuen oso azkar eta zorrotz egiten ditugula epaiak, eta idazleak eta ahotsak berehala lotzeko joera dagoela. Galdera eta susmoa luzatu zituen: “Berdin gerturatzeko gataizkio euskarazko idazleei eta kanpokoei? Susmoa dut ezetz”.

Narratzailea eta egilearen artean, ezinbestean, autofikzioaren aukera mahaigaineratu zuen Dolhare-Zaldun-



Gorka Bereziartua, Amaia Elizalde eta Katixa Dolhare-Zaldunbide.

bidek. Idazleak ezkututzen dira modu batera edo bestera haien pertsonaien atzean: “Diote badela modu bat autozentsura saihesteko, baita modu erraza ere, komunitatearen aitzinean beldurrak ezkutatzeko”. Bada, Dolhare-Zaldunbidek erantsi zuen, gaur egungo idazleei aitortzen bazaie autofikzioa, zergatik ez Jon Miranderi?

Hor datza Bereziartuarentzat ere arazoaren muina: Mirande balitz bezala irakurtzea protagonista, eta erantsi zuen beretzat *Haur Besoetakoa* ez dela hori. Kontrara, “irakurketa alegorikoa” da Bereziartuari interesatzen zaiona, hots, pertsonaiak eta elementuak zeren sinbolo diren, eta horietatik abiatuta egin daitezkeen irakurketa literarioagoak. Elizalde aipatutakoaren bidetik, Bereziartuak esan zuen arriskua zegoela testuingurutik at aztertuta, eta, hariari eutsita, konparazioak egitearen beharraz mintzatu zen. Jon Andoni Iratzustaren *Joanixio* eleberria ekarri zuen gogora, bertan ere badira indarkeria pasarteak, baina, garai bertsuetakoa izan bazen ere, ez zen hainbeste epaitu Bereziartuaren aburuz, mekanismo batzuk izan zirelako haren atzean: “Eliza hor zegoen, eta estamentu sozial oso bat, hori guztia baimentzen zuena”. Epaiaketak egiten hasita, beraz, gonbidapena egin zuen berrirakurketa kriti-

ko sakonak euskarazko literatura osoari egiteko.

MIRANDEREN GUTUNAK

Gaiak eman zuen gehiagorako, jakina. Baina izan ziren bestelako puntu batzuk ere. Euskarazko literaturara egindako ekarpenaz, esan zituzten, besteak beste: izugarrikeriei forma eman zizkiela eta itzuli zituen artisten oihartzuna ekarri zituela, narratiba beste plano batera eraman zuela, beste egiteko modu bat planteatu zuela.

Lehen solasaldia gertatu moduan, bigarren honetan ere, haren ideia politikoei ezin bazter egin. Nazia izan zela ezin uka, hala adierazi zuen bere gutunetako batzuetan, baita agur nazia zen *Seig heil* erabili ere. Bereziartuak hori bera ekarri zuen hizpidera, esanez gutunen literatur-generoa ez dagoela argitaratzeko pentsatuta. Hau da, jatorrian idazki pribatuak ziren. Adierazi izan zuen publikoki ere bai haren jarrera antisemita, baina, Bereziartuaren hitzetan, “antisemitismo selektiboa” egin zuen, barrura edo kanpora begira, hitzak gehiago edo gutxiago neurtzen zituelakoan: “Antisemitismo selektiboa, antisemitismoa da hala ere”. Dolhare-Zaldunbidek gogora ekarri du Arestik berak hitzaurrean adierazi zuela Mirande “nazizalea” izan arren “ekintzetan ez zela obratu”, eta,

are, ziur aski naziak ere ez zutela Mirande onartuko. Zer egin, bada, Miranderekin? Idazlea ala nazia aukeratu? Aukeratzan ahal da bat ala bestea?

Galderari erantzunez, Bereziartuak argi du ezin bereizi daitekeela: “Mirande biak izan zen, eta bi horiekin irakurri behar dugu”. Elizalderi zailagoa egin zitzaion erantzun bat ematea, “labainkorra” izan baitaiteke galdera bera: “Ez dit arazorik suposatzen bere pentsamenduak zituenik jakiteak”. Literaturaren ikuspegia da Elizalderentzat interesantea, eta alderdi horretatik erreparatuta, esan zuen haren pentsamenduek ez dutela “ez kentzen, ez gehitzen”. Azkenik, Dolhare-Zaldunbidek adierazi zuen ideologia hori zuritu gabe, zer punturaino izan ote zen nazia, eta haren obra argitzeko ere ez zitzaiola hain interesgarri.

Ñabardurak ñabardura, orokorrean ikuspegi partekatua izan zuten mahai-kideek. Idazleaz, hirurek loreak. Pertsonaiak, berriz, zalantza gehiago edo gutxiagorekin, baina, oro har, idazletik bereizteko gai. Zer egin, bada? Hori ez da erraza izango azkar ebaztea. Iritziek bide bertsutik jo zuten bi hitzaldietan. Eta irudipena dut badela zerbaiten adierazlea, idazlea jaio eta ehun urte geroago, ospakizunetan bainoago, zorretan ote garen edo merezi duen aitortza egingo ote diogun adosten aritzea. ●

Hitz gezidunak

SASIKUME
HEDATSU

GIZONEZKOA
GURASOEKIKO
3. MUSIKA
NOTA

HAITZULO,
HARPE
IRUDI
GEOMETRIKO

PERTSO-
NAIAREN
ABIZENA

SODIOA
GIDARIAK

ZUBEROAKO
HERRIXKA
LENIN-EN
DOKTRINA
POLITIKOA

HAMALAU
ETA BAT
BELGIKAKO
DOMEINUA

INTERJE-
KZIOA
ONURA JAKIN
BAT HARTZEN
DUENA

ISEKA
EGITEKO ERA
BORROKAN

USO AR
AGATAREN
BARIETATE
PREZIATU

HARRI FIN
MOTA
ÖRE
JANGARRI

IZOTZA,
HORMA

HURBIL
ITSASON-
TZIEN SOKA

ALDEZ
AURRETIK
NAFARROAKO
MENDIA

INTSEKTU
MOTA
NORI
ATZIZKIA

ZALDI ERO / ARGIA CC-BY-SA

NAFARROAKO
HERRIA
LO KULUXKA

IKASTARO
MEGA

PINUAREN
FAMILIAKO
ZUHAITZ
HANDIA
IZUTI

PERTSO-
NAIAREN
IZENA
AHOTSAREN
GARAIERA

ERAZ
NAFARROAKO
MENDIZERRA

ANTXUMEA
(BIZKAIAN)

BUKATU DA!
HAURTZARO

MENTURA,
PATU
IRMO EZARRI

NIRE
ZAKURRA

BERRIKETA,
MARMARRA
GIPUZKOAKO
HERRIA

HERRI
HIZKERAN,
ETA
EDERGARRIZ
HORNITU

FOSFOROA
SOZIJETATE
MUGATUA

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7		9	6	8	4		1
	4				7	2	8	
6					2	5	7	9
	9	6	7	2		1		
	1					6		
2	5			8		9		7
	3		8	1	4	7		
1		8		7	6		9	4

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Gela baten estalki.
2. Gaztagintzan erabiltzen den zurezko ontzi.
3. Batzordea, kontseilua.
4. Azken.
5. Izatea.

EBAZPENAK

IZANA
ATZEN
BATZA
ABATZ
SABAI
:XS

4	6	3	9	7	5	8	2	1
2	9	7	4	1	8	5	3	6
5	1	8	6	3	2	4	9	7
7	4	4	6	1	8	9	3	2
3	2	9	5	6	7	4	1	8
8	5	1	3	2	7	9	6	4
6	7	7	5	2	4	3	8	9
9	8	2	7	5	1	6	4	3
1	3	1	8	6	9	2	7	5

V	M	U	V		O	M	S	I	N	I	N	E	T
O	S	J	R	U	K		V	R	V	H	U	Z	
P		R	O	J	Z	I	T		K	V	D	I	G
E	N	E		O	I	D	R	V	S		V	N	
Z	U	D	O	M		T	V	G	U	J	R	O	P
Z		R	E		U	V		R	V	S	U		
V	J		V	A	N	O	R	I		O	N	O	K
I	R	O	Z		O	T	U	Z	V	R	O	K	
S	V	A	S	I	J		H		I	V		I	M
V	I	V	M	V					E	M	E	S	
R	O	K	U	Z	I				T	V	B	V	Z
E		V		I						H		S	



Bizirik bada, musikaren berotasunagatik da

JON TORNER ZABALA

Udalaren webguneak dio: "Bide Bizia" marka turistikoa eta izen bereko jaialdia Zumarragaren arima munduari erakusteko, bisitariak erakartzeko eta gure ondare material eta inmateriala balioan jartzeko pentsatuta daude". Horretarako, hiru eguneko egitarau zabala prestatu dute eta, iragarri, EiTbko irrati eta telebistek ere iragarri dute ekimena. Larunbateko kontzertura karpa azpian bildu garen askok, halere, ez dakigu oso ongi zertara datorren batbatean sortua dirudien jaialdi hau. Eta, esango nuke, giroan ere eragina izan duela horrek, euri zaparradez harago. Ez dakit nola deskribatu, baina ez du su ez-tian prestatua izan denaren trazarik.

Kontuak kontu, afal aurreko tarteak betetzeko aukera paregabea da. Aramu entzutera ez da jende asko bertaratu, aurrealdean taldetxoak eta atzealdean guraso tropa. Taldea ez zait ezaguna. Duela bi urte Maruri-Jataben sortua dela irakurri dut, eta iaz GAZ saria irabazi zuela Gaztearen Maketa Lehiaketan, hark jaso zituelako internetez bozka gehien. Ba, aizue, boskoteak ondo mereziak zituen

boto horiek. Punk rock ukituak dituen "indie rocka" omen da egiten dutena. "Post-punk eta popa dela idatz dezakezu", esan dit alboan dudak musika-adituak. "Tatxers-eta. 1980ko hamarkadako pop ingelese-edo, Zarama eta horiek, zuk uler dezazun". Azken hori ez dit ahoz adierazi, begiradarekin baizik, azalpena laburbiltzen duen Aramuko abeslari Gorkaren bibotetxoaz iruzkin *boomer* bi egiten ditugun bitartean.

Abesti ederrak iruditu zaizkit bizkaitarrenak, gitarra-kolpe bizi eta hainbat ahotsetara kantatuak, ereserki bilaka daitezke batzuk. Soinua ez da perfektua karpa barruan, baina aho-zapore oso ona laga du Aramuk, gehiagoren gosez.

Giroa beroxeago dago AimarZ musikari gaztearen kontzerturako. 19 urte ditu Zumarragakoak, eta haren kantuak ezagutzen dituzten neska-mutikoak pilatu dira aurrealdean. *Entzun dezatela* da bere abestirik ezagunena, "biralena", baina hura eskaini aurretik ere publikoak oihuka eta dantzari jarri dute soinu elektronikoei, Zea Mays-en *Negua joan da ta* kantaren bertsioa tartean.

ARAMU + AIMARZ

NOIZ: apirilaren 26an.

NON: Zumarragako Zelai-Arizti frontoi irekian.

Iluntzea bere egin du Aimarrek, kanta batzuen pasarte intimoenetan publikoa txor, txor eta txor aritu izanagatik ere. Beste deskubrimendu polit bat.

Ostean, Tapia eta Leturia eta haien bandak jo dute. Bitxia da, Zumarraga eta Urretxuko eragileak biltzen dituen Kultur Aterkia kolektiboak kontzertu bera antolatu zuen duela urtebete baino gutxiago, gauden lekutik 200 metro eskasera. Denbora laburrean bi bider, beraz.

Abesti mitiko pareak entzunda hartu dugu etxerako bidea. Karpa beteago dago, giroa oraindik hotz xamar baina ziur jendea dantzan hasiko dela aurrera, nahiz eta musikari biak aulki banatan eserita dauden eszenatokian, eta atzealdetik ez diren ikusten. Auskalo, agian izango zuen eragin paralizanterik horrek. Horrek eta, inguruan ditudan lagunak ustez, eltzekada goxo batek behar duen bor-borra falta izan zaiolako kontzertuari. Bale, bai, gu ere ez gauden atzealdean ditugun *food truck*-etako "gourmet" hanburgesak bezain xamur, baina... ●



LIBURUA

Gure iragan femenino eta feministaz



ZALDI ERO

**ZUZI IRAXEGIA.
EUSKAL EMAKUME
IDAZLEAK ETA
LITERATURA KLASIKOA
AMAIA ALVAREZ URIA**

TESTU ZAHARRAK, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Liburua esku artean izan aurretik ere arnas luze bat atera zitzaidan barru-barrutik: “ze beharrezkoa”, edo horrelako zerbait esan nahi zuen. Euskal Filologiako ikaslea nintzeneko literatura eskolak oroitu eta elizgizonek idatzitako testu erlijiosoen kantitate harrigarria go-goan dut oraindik. “Hau al da euskaldunok idatzi dugun bakarra? Euskaldun gizon eta apaizek bakarrik idatzi al dute?”, pentsatzen nuen orduan. Orduko galderrei erantzun batzuk ematen dizkien liburu honen bi ale erosi nituen, badaezpada.

Sarrera eta Iratxe Retolazaren hitzoste bikainaz gain, sei kapitulu ditu liburuak, XIV. mendetik hasi eta XX. menderaino euskal emakume idazleek kontatutako edo idatzitakoak ordena kronologikoan banatuta. Kapitulu guztiak mende bakoitzeko kokapen sozio-historikoarekin

hasten dira. Horrek liburua bereziki pedagogikoa eta dibulgatzailea izatea egiten du, ikasteko gogoia pizten du. Gero, mende bakoitzari dagozkion testu adibideak jasotzen ditu, ahozko transmisioetik jasoak asko, orain arteko antologia osatuena sortzeko. Duela hamarkada pasa ikasi nuen karrerarekin rekontziliatu nau gure genealogia femenino eta feminista bat –Retolazak ere azpimarratzen duen moduan– liburuan jasota ikustek. Osorik irakurri dudana arren etengabe itzuliko naizen liburu horietako bat da, zalantzarik gabe. Eta, amaitzeko, testu horien iruzkina ere egin du Alvarez Uriak. Horrek irakasle ere bagarenontzat esku-liburu ezinbestekoa bihurtzen du liburua.

Aipamenak eta iturriak askotarikoak dira: iraganekoak eta oraingoak, ahozko jatorrizkoak zein idatzizkoak, klasikoak

eta modernoak, gizonek eta emakumeek egindako ekarpenak... freskotetasun eta gaurkotetasun handia emanaz liburuari. Orain arteko panorama literarioa zabaltzeko proposamena egiten du idazleak. Euskal literaturari buruz egin dugun orain arteko kontakizuna baino osatuago den beste bat egiteko aukera eskaintzen zaio irakurleari (eta kritikariari, irakasleari, teorilariari eta abarriari).

Apirilaren 20an astekari honetan bertan egindako elkarrizketan hau adierazten du: “Eztabaidarako proposamena da nire liburua, elkarrizketa pizteko nahia du”. Eta kanonari buruz, genealogiari buruz eta kontatzen (ez) dugunari buruzko hausnarketa iraxegiko duela desio dut nik ere. Euskal literaturaren historiari Amaia Alvarez Uriak egin dion ekarpena handia da-eta. ●



MUSIKA

Galtzaileen bandoaren popa



XALBA RAMIREZ

O hartu gabe igarotzen diren taldeen multzoa gero eta handiagoa da, edo inoiz baino handiagoa, behintzat. Hiuzz taldearen *Esperoan* lanak hilabete batzuk badituen arren, ez nuen ganoraz entzuteko denborarik asmatu. Eta a ze pena. Pop elegantearen beste harribitxi bat gehiago etorri da hiri buruzagitik eta!

Talde bat aurkezteko beste talde bat aipatzearen tradizioan, Beti Muga hondarribiarrak ekarriko nituzke. “Jack Kerouac non ote dago?” lelo itsas-korrekin zerikusi gutxi duten arren, iruindarrek badituzte melodia ederrak, erritmo aldaketak eta kantu ikonikoak. Urte batzuk barru —argindarrak existitzen jarraitzen badu— egongo da gaz-

terik esaten: “2020ko hamarkadako Iruñea zer zen! Hiuzz, Borla, Tatxers, Ibil Bedi... zenbat diskotzar!”. Halaxe da *Esperoan*. Oharkabea igarotzera deituta dagoen diskotzarra.

Soilik gizonen osatutako taldeek badute atzeraka egiten didan *winner* izaera hori. *Loser*-aren posizioa askoz gehiago maite dut, batez ere umiltasunaren beharra ematen dizulako. Zaila da ego-tripa ekiditea aretoak bete eta entzuleak fan bihurtzen direnean. Oharkabea pasatzen denarentzat, ordea, handinahikeriek ez dute zentzurik, eta pasioa zintzotasunarekin betetzen da.

Gero kritikatu du inork “undergroundaren erromantizazioa” (zerbait



ESPEROAN

HIUZZ

AUTOEKOIZPENA (EGUN
MOTELAK KOLEKTIBOA), 2024

txarra balitz moduan, gainera). Ez, honbre. “Undergroundaren apologia” da galtzaileen bandoaren kontsigna. Nahikoa desastre dira eta giza mundua eta sortzen ditugun harreman sareak. Kultura izan dadila geure buruak eraldatzeko tresna, “zenbat aldatu zaren, kamarada” leloari “eskerrik asko” bategin erantzuteko.

Galtzaileen bandoan ez dago presarik, ez dago exigentziarik, ez dago marketin planik. Bide xumea egiteko ekarpena da. Mundu bat nahieran eraikitzeak aukera da: “Aurrean duzuna desagertu egingo da klik batean, batean... Mundu bat, berri bat, loratu egingo da, nahieran, nahieran...”. Biba Hiuzz, beraz! ●

Itxaropena eta euskal liburuen itzalaldi progresiboa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Joan den asteleheneko itzalaldia? Laburregia. Astirik ez konturatzeke elektrizitaterik gabeko mundu batek zeren tankera izan dezakeen benetan. Sistemaren ohiko denborak eten ziren gure alderdi sinpatikoa ateratzeko adina –covidarengatik konfinatuta pasa genuen lehenbiziko asteburu hartako “honen ondoren hobeak izango gara” famatu hartan bezala–, eta ez dugu jakingo zer pasako litzatekeen asuntua luzatuz gero –aurrekariak ezagututa, kanibalismoa ere gertagarria iruditzen zaidan arren–. Eta, hala ere, ni behintzat gauza batekin super satisfos geratu nintzen: horrelako egoerarako prest daukadan larrialdi-kit partikularrak %100 operatibo jarraitu zuen. Beharbada datozen 40 urteak pasatzeko adina material daukat pilatuta, erositakoen eta, batez ere, debalde edo ia debalde lortutakoen artean. Eta orain badakit ez didatela hutsik egingo.

Aspaldi asmatutako gailu batzuk dira, etxean daukadan zaharrenak izango ditu pare bat mende. Oinarri-oinarrizko premia bati erantzuten diote, berehala jartzen dira martxan, argindarrik ez dagoenean ere funtzionatzen dute, ez dituzu piztu behar. Denbora –dezente– eta eguzki-argia –pixka bat– aski dituzu haiek erabiltzeko. Hurrengo apokalipsi simulakroa eklipse luze samar bat ez den bitartean, dena ondo, beraz. “Non daude orain liburu hauek guztiak pilatzen ari nintzelako erotzat hartu nindutenak? E? Non daude?”, oihu egin nuen, besoak zabalik, etxe hutseko sabaiari begira –ados, beharbada badaukate arrazoren bat ni erotzat hartzeko; baina ez da bibliofiliaren kontrako arrazoi hori–.

Liburu-prepper gisa armairutik ateratzea erabaki badut, ez da jendea animatu nahi dudalako gauza bera egitera: bakoitza bere martzianoak bizi du eta horren arabera akumulatzen ditu gauzak

etxean kopuru absurduki handietan “ba-daezpada”. Hau dena idazten ari naiz, nagusiki, ikusten dudalako oso zentratuta gabiltzala krisi energetiko eta konklabe vatikandarrekin, eta agian oharkabeen pasa zaigu azken mende honetan euskal liburugintzak jasan duen itzalaldirik handienari bizirauteko gai izan zen inprimategi-argitaldaria agur esan berri duela: Zarauzko Itxaropenak ateak itxi ditu 93 urteren ondoren. “Beste garai ilunago batzuek lortu ez zutena, baina, gaur egungo testuinguruak lortu du azkenean”, esan zion enpresako buru Pello Unzurrunzagak pasa den larunbatean *Berria*-ri.

Artikuluari geratzen zaizkion beste 1.000 karaktereak pasa ahalko nituzke aipatzen urteotan Itxaropenak publikatu –edo Itxaropenan inprimatu– diren lanak. Oso zerrenda injustua izango litzateke, ziur gauza inportanteegiak geratuko lirатеkeela kanpoan. Kontua, gainera, ez da lantua jotzea desagertu den proiektu

historiko batengatik, panorama orokorrari begiratzea baizik: aspaldidanik entzuten da euskarazko liburuak geroz eta gutxiago saltzen direla. Zerbait sakonki aldatzen hasteko modukoa izan behar luke, bere horretan. Eta aldatu beharreko lehenbiziko gauza liburuari gure kulturaren leku zentrala emango liokeen politika publiko berriren bat den arren, iruditzen zait administrazioari eta sektore editorialari itxoiten egon gabe, gure buruari ere galdetu diezaiokegula zer balio ematen diogun euskal literaturari. Inpresioa baitaukat azken urteetan halako pasotismo bat orokortu dela; Pierre Bourdieuren hitzetan esateko, euskarazko liburuen kapital sinbolikoa izugarri debalututa agertzen zaigula une honetan –eta hori *guk* ere egin dugula, egiten dugula–.

Itzalaldi puntualak baino, beldur handiagoa ematen didate horrelako itzalaldi progresiboek. Ba ote dauzka norbaitek linterna pizteko pilak? ●



ARTZ MUTIOZABAL / ZARAUZ GUKA

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

IPUSCUA

1000 urte

Ipuscuatik Gipuzkoara 1025-2025

SAN TELMO MUSEOA

Erakusketa · 2025/01/18 – 2025/05/11



www.santelmomuseoa.eus • @santelmomuseoa • Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

 **GIPUZKOA**
Kultura

IPUSKOA Irizteak
Izena
1000 urte